ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Espediente-zenbakia: 2021030

Xedea: Bioosasunaren euskal sektorearen panorama 2022 txostena prestatzea".

Edukia:

Kontratuaren klausula espezifikoak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

AURKIBIDEA

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK 5

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK 5
1. KONTRATUAREN XEDEA 5
2. KONTRATU-AGIRIAK 5
3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 5
4. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 6
5. PREZIOA ETA ORDAINKETAK 6
6. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EGIKARITZEKO EPEA. LUZAPENA . 6
7. PUBLIZITATE-GASTUAK 6
8. BERMEAK 6
9. ASEGURUAK 6
10. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA 6
11. EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK 7
12. KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK 7

13. ZIGORRAK 7
14. AZPIKONTRATAZIOA 8
15. BETEARAZPENA, HARRERA ETA BERME-EPEA EGIAZTATZEA 8
16. KONTRATUA ALDATZEA 8
17. INDARGABETZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK 8
18. KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO BALDINTZA GEHIGARRIAK 8

II.- ESLEIPEN PROZEDURAREN EZAUGARRIAK. 9
19. ORGANOAK ETA ERREGISTROAK. 9
20. IZAPIDETZEA ETA ESLEIPEN PROZEDURA. 9
21. KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ATXIKITZEA. 9
22. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK. 10
23. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK. 13
24. GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK. 13
25. ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK 14
26. PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK. 14

III.- BESTELAKO ZEHAZTASUNAK. 15
27. KONTRATUA LAGATZEA. KONTRATUA LAGATZEKO, BALDINTZA OROKORRETAKO 35.1.1 KLAUSULAN EZARRITAKO KASUEZ GAIN, BESTE KASU BATZUK ERE AURREIKUSI DIRA. 15

BALDINTZA OROKORRAK. 16

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK. 16
1. KONTRATUAREN XEDEA. 16
2. KONTRATU-AGIRIAK. 16
3. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA. 16
4. GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN BALDINTZAK, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ESPEZIFIKO BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, ETA DATUEN BABESA 17

5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA, IZAPIDETZE AURRERATUA ETA BALIO ZENBATETSIA. 17
6. KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.
7. PREZIOAK BERRIKUSTEA. 18
8. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA. 18
   - 8.1. Traktu bakarreko kontratua. 18
   - 8.2. Segidako traktuko kontratua. 18
   - 8.3. Segidako traktuko kontratua luzatzea. 18
9. BERMEAK. 18
10. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK. 18

II.- LIZITAZIOA. 19
11. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. 19
12. ESKAINTZAK AURKEZTEA. 19
   - 12.1. Hizkuntza. 19
   - 12.2. Baliabideak. 19

12.2.1. Bitarteko elektronikoak. 19
12.2.2. Bitarteko ez-elektronikoak edo paperekoak. 20
12.3. Konfidentzialtasuna. 21
12.4. Agiriak egiaztatzea. 21
12.5. Jakinarazpenak eta komunikazioak. 22
12.5.1. Jakinarazteko eta komunikatzeko jarduerak 22
12.5.2. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea. 22
12.5.3. Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoen bidez edo paperean aurkeztea. 22
13. A GUTUN-AZALA «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK». 22
13.1. Gutun-azal honetan jaso behar diren dokumentuen zerrenda. 22
13.2. Kaudimen-metaketa ABEE-en kasuan. 23
13.3. Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko arau espezifikoak. 23

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA. 25
14. ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA. 25
15. AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA BALIOESTEA. 25
16. BALIO JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 25
16.1. Irekiera publikoa. 25
16.2. Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea. 26
16.3. Salbuespen-kasua: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea. 26
17. FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 26
17.1. Ireki aurreko jarduketak. 26
17.1.1. Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen dira. 26
17.1.2. Ez da erabiltzen balio-judizio bat egitea eskatzen duen irizpiderik. 26
17.2. Gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak irakurtzea. 26
18. ESKAINTZAK EBALUATZEA. 26
19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK. 27

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA. 28
20. ESLEIPEN-PROPOSAMENA. 28
21. ESLEITU AURRETIK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA. 28
22. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA. 29
23. KONTRATUA FORMALIZATZEA. 29

V.- KONTRATUA EGIKARITZEA. 31
24. KONTRATUAREN ARDURADUNA. 31
25. ZERBITZUAK EGIKARITZEA. 31
25.1. Kontratu-dokumentuei eta jarraibideei lotzea. 31
25.2. Lan-egitasmoa. 31
25.3. Baimenak. 31
25.4. Aseguruak. 32
25.5. Lankidetza. 32
25.6. Kontratistaren erantzukizuna. 32
25.7. Indemnizazioa obra-proiektuak egiteko kontratuetan. 32
26. EGIKARITZEAN ERABILITAKO BALIABIDEAK. 32
26.1. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa. 32
26.2. Langileei buruzko arau espezifikoak. 33
26.3. Lan-baldintzei buruzko informazioa. 33
26.4. Kontratua egikaritzeko lekua. 33
26.5. Ukigabetasun-araua. 34
26.6. Langileen subrogazioa. 34
27. LAN ARLOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO BETEKIZUNAK. 34
28. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK. 35
28.1. Linguistikoak. 35
28.2. Sozialak edo enpleguari buruzkoak: 36
28.3. Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea 36
29. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA. 36
29.1. Konfidentzialtasuna. 36
29.2. Datu pertsonalen tratamendua. 36
30. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALARI DAGOZKION ESKUBIDEAK. 37
30.1. Lanen jabetza. 37
30.2. Jabetza industriala eta intelektuala. 37
31. ZIGORRAK. 38
31.1. Kausak eta zenbatekoak. 38
31.2. Prozedura. 39

32. PREZIOA ORDAINTZEA. 39
32.1. Emandako edo egikaritutako zerbitzuen ziurtagiriak. 39
32.2. Fakturaren adostasuna eta erregistroa. 39
32.3. Ordainketa. 39
33. KONTRATUA ALDATZEA. 40
33.1. Baldintzak. 40
33.2. Prozedura. 40
33.3. Ondorioak. 41
34. AZPIKONTRATAZIOA. 41
34.1. Kontratuaren arduradunari jakinaraztea. 41
34.2. Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea. 41
35. KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA. 41
35.1. Kontratua lagatzea. 41
35.2. ABEEko partaideak aldatzea. 42

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA. 44
36. BETETZEA: ENTREGATZEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA. 44
37. BERME ALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA. 45
37.1. Kontratistaren betekizunak. 45
37.2. Bermea itzultzea. 45
38. EBAZPENA. 46

VII.- GORABEHERAK ETA BERRIKUSPENA 47
39. GORABEHERAK. 47
40. BERRIKUSPEN-ARAUBIDEA 47

ERANSKINAK.....

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Definizioa: "Bioosasunaren euskal sektorearen panorama 2022 txostena prestatzeko" zerbitzua, preskripzio tekniko partikularren pleguan jasotako baldintzetan.

1.2.- Loteak: Ez. Kontratuaren xede den prestazioa prestazio bakartzat hartzen da, zatiezina.

1.3.- CPV kodea:

Xedea	Kode nagusia
Enpresa-analisiari buruzko aholkularitza-zerbitzua	72221000-0

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: Ez

1.5.- Traktua: bakarra

1.6.- Beste ezaugarri espezifiko batzuk: Ez

2.- KONTRATU-AGIRIAK.

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua hau da: 65.000 euro, gehi 13.650 euroko BEZa, eta urteroko honi/hauei egozten zaio/zaie:

- 2022. urtea: 65.000 euro gehi BEZa.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gehienezkoa da. Ondorioz, baztertu egingo dira gainditzen duten eskaintzak.

Aurrekontua merkatuko prezioetarako egokitzat jotzen da, kontuan hartuta zuzeneko soldata-kostuak eta zeharkako gastuak –lizitatzailearen egitura-gastuek eta industria-mozkinek osatutakoak–.

Ondorio guztietarako, ulertuko da esleipendunek proposatutako eskaintzetan eta prezioetan sartzen direla kontratatutako prestazioak betetzeko egin beharreko gastu guztiak, hala nola aseguruak, garraioak, eskura jartzea eta zergak (BEZa izan ezik).

Antzeko prestazioetan esleitu diren azken kontratuetako benetako balioa hartu da kalkulurako oinarritzat.

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa: SPRIren aurrekontuko Trantsizio Estrategikoen Saileko 24499.00/47 kontabilitate-errubrika. Horiek Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako Aurrekontu Orokorrean sartuta daude.

3.3.- Izapidetze aurreratua: ez

3.4.- Gastua konfinantzatuta dago: ez.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia hau da: 65.000 euro (BEZik gabe).

4.2.- Kalkulatzeko metodoa:

Lizitazioaren aurrekontua (BEZik gabe)	65.000 euro
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Lizitatzaileei ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Behin-behineko aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Luzapena (BEZik gabe)	----
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	65.000 euro

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Prezioa oroharreko sistemaren bidez ezartzen da.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modalitatea: Ordainketa partzialak, eta honako hauen arabera egingo dira:

- I. ENTREGAGAIA onartzean: esleipeneko prezioaren % 20.
- II. ENTREGAGAIA onartzean: esleipeneko prezioaren % 30.
  - Kontratua amaitzean: esleipeneko prezioaren % 50.

5.3.- Prestaketa-eragiketak: ez

5.4.- Prezioen berrikuspena: ez

5.5.- Epeekin edo errendimenduekin lotutako zenbait xede betetzearen arabera prezioa aldatzeari buruzko klausulak: ez

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EGIKARITZEKO EPEA. LUZAPENA.

6.1.- Iraupena guztira edo egikaritzeko epea, edo azken eguna: 2022/12/31

6.2.- Hasiera-eguna: 2022ko urtarrilaren 1etik edo, data horren ondorengoa izanez gero, kontratua formalizatu ondorengo egun baliodunetik.

6.3.- Epe partzialak: bai.

- **Prestazioa:** II. entregagaia, "Elementu metodologikoak"
- **Epea:** 2022/09/15
- **Prestazioa:** III. entregagaia, "Laguntza-jardueren benchmarkinga"
- **Epea:** 2022/10/15
- **Prestazioa:** I. entregagaia, "Bioosasunaren Panorama 2022 txostena"
- **Epea:** 2022/10/15

6.4.- Kontratua luzatzea: ez

7.- PUBLIZITATE-GASTUAK.

Ez dago halakorik.

8.- BERMEAK.

8.1.- Behin-behineko bermea: ez

8.2.- Behin betiko bermea: bai, esleipen-prezioaren % 5ari dagokion zenbatekokoa, BEZa sartu gabe.

8.3.- Berme osagarria: ez

8.4.- Zilegi da bermeak prezioaren atxikipenaren bidez eratzea: ez

8.5.- Prestazio osoa ez baizik eta zati bat jasotzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: ez

Bermeak SPRI - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatearen alde eratuko dira. IFZ: Q4800789B. Bermea banku-abala edo kauzio-asegurua denean, jatorrizkoak SPRIren bulegoetan entregatuko dira, Kontratazio Mahaiko idazkari Oskar Alberdi jaunaren izenean.

9.- ASEGURUAK.

Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta berariazko aseguru hauek ere, eta esleipendunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu beharko dira: bai

- Poliza mota: Erantzukizun zibileko asegurua
- Baldintza espezifikoak: Arrisku profesionalengatiko edo produktuaren erantzukizunagatiko erantzukizun zibileko asegurua, gutxienez kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko bereko kalteak estaltzen dituena; hau da, 65.000 euro.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA: ez da halakorik

11.- EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK.

11.1.- Sozialak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- Baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko 2016ko apirilaren 7ko 3/2016 Legeko 7. artikulua betez.

11.1.2.- Bestelakoak:ez

11.2.- Ingurumenari dagozkionak: ez

11.3.- Etikoak: ez

11.4.- Linguistikoak: baldintza orokorren 28.1 klausulan ezarritakoak.

11.5.- Beste batzuk: ez

Halakorik balego, azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK:

12.1.- Funtsezko kontratu-betebeharrak:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan adierazitako egikaritze-baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua gauzatzeko, **II-2 ERANSKINEAN "Baliabideak atxikitzeko konpromisoa"** ageri den erantzukizunpeko adierazpeneko koadroan adierazitako baliabideak atxikitzea, bai eta giza-baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta esleipen-prozeduran egiaztatuta badaude kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzeko.

12.1.3.- Kontratistak berak prestazioaren zati jakin batzuk edo lan zehatzak egiteko betebeharra, kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontrataziorako adierazten diren baldintzak, azpikontratistaren gaitasuna baldintza orokorren 34.1 klausularen arabera egiaztatzea, eta SPKLren 215.2 artikuluaren c) letran aipatzen diren larrialdi- edo premia-egoeraren inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- Bestelakoak: ez

Kontratuko funtsezko betebeharren bat ez betetzea **arau-hauste larria** da, SPKLren 71.2 c) artikuluaren arabera.

12.2.- Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko beste betekizun batzuk:

12.2.1.- Ingurumen-arloko betekizunak: ez

12.2.2.- Gizarte- edo lan-arloko betekizunak:

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera, SPKLren 122.2 artikuluan jasotakoarekin bat.

12.2.2.2- Bestelakoak: ez

13.- ZIGORRAK.

13.1.- Zigor gehigarriak ezartzen dira baldintza orokorren 31.1 klausulan **aurreikusitakoez gain**: ez

13.2.- SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan ezarritakoez **bestelako zigor-zenbatekoak ezartzen dira**, epeak betetzen berandutzeagatik: ez

14.- AZPIKONTRATATZEA.

14.1.- Azpikontratatzeko aukera mugatzen da: Bai, 18.3 klausulan adierazitakoa betez, ez da azpikontrataziorik onartzen, kontratuaren izaera eta ezaugarriak direla eta. Lana egiteko solaskide bakarra behar dela uste da.

Horren harira, ez da azpikontrataziotzat hartzen dagozkion lanak ingelesera itzultzea.

14.2.- Lizitatzaileek honako informazioa eta/edo dokumentuak emateko betebeharra dute:

Ez da halakorik

15.- BETEARAZPENA, HARRERA ETA BERME-EPEA EGIAZTATZEA.

15.1.- Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko modua: esleipendunaren txostena, kontratuari dagozkien lanen amaierari buruzkoa, eta SPRIko kontratuaren arduradunak egindako egiaztatze-txostena, fakturak ordaindu aurretik.

15.2.- Bada harrera partzialik: Ez.

15.3.- Berme-epea: Bai, hiru hilabete, lanaren azken entregatzea egiten denetik zenbatzen hasita.

16.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua aldatzeko aukera, pleguetan aurreikusita (SPKLren 204. art.): ez

17.- INDARGABETZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira baldintza orokorren 38. klausulan aurreikusitakoez gain: ez

18.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO BALDINTZA GEHIGARRIAK

18.1.- Baldintza orokorren 25.2 klausulak ezarritako **laneko programa** aurkezteko betekizuna du kontratistak: ez

18.2.- Datu pertsonalak tratatzeko neurri berezi gehigarriak ezartzen dira, baldintza orokorren 29.2. d) klausulako 2. atalean jasotakoez gain: ez

18.3- Eskatzen da prestazioaren zatiak edo lan zehatzak kontratistak berak egitea, SPKLren 75.4 artikuluak dioenarekin bat: bai, prestazio osoa enpresa esleipendunak egin behar du, eskaini beharreko zerbitzuen izaera dela eta.

18.4- Besterik: ez.

II.- ESLEIPEN PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

19- ORGANOAK ETA ERREGISTROAK.

19.1.- Botere adjudikatzailea: SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA.

19.2.- Organoak identifikatzea.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: SPRIren zuzendari nagusia

19.2.2.- Kontratuaren arduraduna: Cristina Oyón.- Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasun Arloko zuzendaria.

19.2.3.- Kontratazio-mahaiaren osaera: mahaiko presidente Cristina Oyón andrea (Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasun Arloko zuzendaria) izango da eta 3 batzordekide ere izango ditu: Aitor Uriarte jauna (Administrazio eta Finantza Saileko teknikaria), Oskar Alberdi Sola jauna (Zerbitzu Juridikoko zuzendaria) eta María Aguirre andrea (Trantsizio Estrategikoen Saileko teknikaria). Oskar Alberdi jauna izango da idazkaria.

Beharrezkoa izanez gero honako ordezkapenak aurreikusten dira:

.- Oskar Alberdi, Maider Eskubik edo Leire Renteriak ordezkatuko du.

.- Aitor Uriarte, Aitor Peñeñorik ordezkatuko du.

19.2.7.-Adituen batzordea / organismo tekniko espezializatua: ez

19.3.- Kontsulta teknikoei erantzuteko harremanetarako pertsona:

- Helbide elektronikoa: cristina@spri.eus, maguirre@spri.eus
- Telefono zk.: 944037000

19.4.- Kontsulta administratiboei erantzuteko harremanetarako pertsona.

- Helbide elektronikoa: iarregi@spri.eus
- Telefono zk.: 944037006

19.5.- Erregistroak:

19.5.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoa (ikus baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

19.5.2.- Ziurtagirien eta fakturen aurkezpen-erregistroa: SPRI, Urkixo zumarkalea 36-4. Bizkaia Plaza eraikina - 48011 Bilbo.

20.- IZAPIDETZEA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA.

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: ez

20.2.- Izapidetzea: ohikoa

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Lotetan banatzeari buruzko informazioa: ez da halakorik

20.5.- Izapidetzeko bitartekoak: elektronikoak.

20.6.- Enkante elektronikoa: ez

20.7.- Gizarteratzeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat edo enplegu babestuko programen barruan daudenentzat gordetako kontratua: ez

20.8.- Zenbait erakunderentzat gordetako kontratua, gizarte-, kultura- edo osasun-izaerako zerbitzu-kontratua izateagatik, SPKLren 48. xedapen gehigarriaren arabera: ez

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ATXIKITZEA.

21.1.- Gutxieneko kaudimen-baldintzak izateko betebeharra: bai, hurrengo 21.2 klausularen arabera.

21.2.- Kaudimena: eragile ekonomikoek kaudimen hau izan behar dute.

- **Ekonomikoa eta finantzarioa. Eskakizuna(k):**
- (i) Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru ekitaldietako (2020, 2019 eta 2018) ekitaldirik onenari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioa halako bat eta erdi edo gehiago izatea, hau da, 97.500 euro.

- (ii) Arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguruak edo produktuaren erantzukizuna izatea, 9. Klausulan (Aseguruak) ezarritako zenbateko berekoak edo handiagokoak.

- **Teknikoa edo profesionala. Eskakizuna(k):**

  Azken hiru urteetan lehiaketaren xede diren lanen izaera bereko edo antzeko beste lan batzuk egin dituztela ziurtatzen duten enpresek baino ezingo dute lehiaketan parte hartu, baldin eta lan horien urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoaren % 70 (45.500 euro) edo handiagoa bada.

Eragile ekonomikoak sortu berriak badira (antzinatasuna bost, 5, urte baino laburragoa) honako kaudimen tekniko edo profesional hau izan beharko dute:

Lehiaketan parte hartzeko, enpresek egiaztatu beharko dute azken hiru urteetan, edo dagokionean eratze-datatik, plantillan gutxienez 5 langile dituztela.

Baldintza orokorretako 11.4 klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu kaudimenari dagozkion eskakizun horiek, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

21.3.- Sailkapena: ez da halakorik.

21.4.- Gaikuntza enpresariala edo profesionala: ez

21.5.- Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi beharko dituzte: ez

21.6.- Baliabideak nahitaez atxikitzea: bai, II.2 ERANSKINEKO «Baliabideak atxikitzeko konpromisoa» koadroaren arabera.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar du benetan erabilgarri daudela baliabide horiek, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

22.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

22.1.- Esleipen-irizpide bakarra dago: ez

22.2.- Hainbat esleipen-irizpide daude: bai

22.2.1.- Balio-judizio baten arabera zenbatetsitako irizpideak: bai

Haztapena: 49 puntu

Ebaluatutako eskaintzaren puntuazio teknikoa atal bakoitzerako lortutako puntuazioen batura izango da, jarraian deskribatutakoaren arabera:

Haztapen-faktoreak

	Gehienezko puntuazioa	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da aurkeztu edo ez dagokio
		% 100	% 75	% 50	% 25	% 0
Lantaldea	20					
Prestakuntza eta gaikuntza	8	8,00	6,00	4,00	2,00	0,00
Esperientzia profesionala	12	12,00	9,00	6,00	3,00	0,00
Memoria teknikoa	29					
Proposatutako metodologiaren egokitasuna eta sendotasuna	15	15,00	11,25	7,5	3,75	0,00
Plangintza faseka: mugarrien eta faseen bideragarritasuna	7	8,00	6,00	4,00	2,00	0,00
Fase batzuetan eta besteetan diharduten langileen proportzionaltasuna	7	6,00	4,50	3,00	1,50	0,00

OHARRA: PUNTUAZIOA, EDOZEIN IRIZPIDETAN, 0 IZANGO BALITZ, ONDORIOA IZANGO LITZATEKE LEHIAKETAN ESKAINTZA BAZTERTZEA.

- Irizpidea: Lantaldea
- Haztapena: 20 puntu
- Irizpidea balioesteko metodoaren deskribapena:

1 Prestakuntza eta gaikuntza (8)
Bikaina: 8; Ona: 6; Tartekoa: 4; Oinarrizkoa: 2; Ez da aurkeztu edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak oso prestakuntza eta gaikuntza egokiak ditu, eta balio handia ematen dio zerbitzuari.
- Ona: Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta gaikuntza egokiak ditu, eta kalitatea eskaintzen dio zerbitzuari.
- Ertaina: Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak behar besteko prestakuntza eta gaikuntza ditu.
- Oinarrizkoa: Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak oinarrizko prestakuntza eta gaikuntza ditu, baina ez da nahikoa zerbitzuari balioa emateko.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak ez du ez prestakuntzarik, ez gaikuntzarik.

2 Esperientzia profesionala (12)
Bikaina: 12; Ona: 9; Tartekoa: 6; Oinarrizkoa: 3; Ez da aurkeztu edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Lantaldeak esperientzia profesional oso altua du lizitazioaren xedearen antzekoak diren proiektuetan; zehatzago esanda, bioosasunaren sektoreko aholkularitza estrategikoko, teknikoko edo merkatu-aholkularitzako proiektuetan, eta horrek balio handia ematen dio zerbitzuari.
- Ona: Lantaldeak esperientzia profesional egokia du lizitazioaren xedearen antzekoak diren proiektuetan; zehatzago esanda, bioosasunaren sektoreko aholkularitza estrategikoko, teknikoko edo merkatu-aholkularitzako proiektuetan, eta horrek kalitatea ematen dio zerbitzuari.
- Ertaina: Lantaldeak esperientzia profesional eskasa du lizitazioaren xedearen antzekoak diren proiektuetan; zehatzago esanda, bioosasunaren sektoreko aholkularitza estrategikoko, teknikoko edo merkatu-aholkularitzako proiektuetan.
- Oinarrizkoa: Lantaldeak ez du esperientzia profesional nahikorik lizitazioaren xedearen antzekoak diren proiektuetan; zehatzago esanda, bioosasunaren sektoreko aholkularitza estrategikoko, teknikoko edo merkatu-aholkularitzako proiektuetan.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: Lantaldeak ez du esperientzia profesionalik lizitazioaren xedearen antzekoak diren proiektuetan; zehatzago esanda, bioosasunaren sektoreko aholkularitza estrategikoko, teknikoko edo merkatu-aholkularitzako proiektuetan.

- Irizpidea: Memoria teknikoa
- Haztapena: 29 puntu
- Irizpidea balioesteko metodoaren deskribapena:

1 Proposatutako metodologiaren egokitasuna eta sendotasuna: (15)
Bikaina: 15; Ona: 11,25; Tartekoa: 7,50; Oinarrizkoa: 3,75; Ez da aurkeztu edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Proposatutako metodologiak jasotzen ditu baldintzen pleguko betekizunak, eta modu argi eta zehatzean garatzen ditu horiek guztiak, irtenbideari balio handia emanez, proposamenak erantzun onena bermatzeko moduan.
- Ona: Proposatutako metodologiak jasotzen ditu baldintzen pleguko betekizunak, eta modu argi eta zehatzean garatzen ditu horiek guztiak, irtenbideari kalitatea emanez, proposamenak erantzun egokia bermatzeko moduan.
- Ertaina: Proposatutako metodologiak jasotzen ditu baldintzen pleguko betekizunak, baina betekizun horien garapena eskasa da; beraz, nahiz eta proposamenak zerbitzuaren beharrak asetzen dituela dirudien, ezin da ziurtatu horiek guztiak betetzen direnik.
- Oinarrizkoa: Proposatutako metodologiak, funtsean, betetzen ditu baldintza teknikoen pleguko baldintzak, baina zerbitzuaren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: Proposamenak ez du horri buruzko konponbiderik jasotzen, edo proposatutako konponbideak ez ditu betetzen eskakizunak.

2 Plangintza faseka: mugarrien eta faseen bideragarritasuna (7)
Bikaina: 7,00; Ona: 5,25; Tartekoa: 3,5; Oinarrizkoa: 1,75; Ez da aurkeztu edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Memoria teknikoan proposatutako mugarriek eta faseek bideragarritasun handia eskaintzen dute gauzatzeko garaian, eta emaitzari balio handia eskaintzen diote.
- Ona: Memoria teknikoan proposatutako mugarriek eta faseek bideragarritasun egokia eskaintzen dute gauzatzeko garaian, eta emaitzari kalitatea eskaintzen diote
- Ertaina: Memoria teknikoan proposatutako mugarriek eta faseek bideragarritasun txikia erakusten dute gauzatzeko garaian. Hori dela eta, ezin da bermatu betetzen direnik.

- Oinarrizkoa: Memoria teknikoan proposatutako mugarriek eta faseek oinarrizko bideragarritasuna erakusten dute gauzatzeko garaian, baina zerbitzuaren oinarrizko alderdi bat dago garatu gabe.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: Proposamenak ez du fasekako plangintza barne hartzen.

3 Fase batzuetan eta besteetan diharduten langileen proportzionaltasuna (7)
Bikaina: 7,00; Ona: 5,25; Tartekoa: 3,5; Oinarrizkoa: 1,75; Ez da aurkeztu edo ez dagokio: 0

- Bikaina: Fase batzuetarako eta besteetarako proposatutako langileen dedikazioak oso proportzionaltasun oso egokia du, eta balio handia ematen dio horiek gauzatzeari.
- Ona: Fase batzuetarako eta besteetarako proposatutako langileen dedikazioak proportzionaltasun egokia du, eta kalitatea eskaintzen dio horiek gauzatzeari.
- Ertaina: Faseetarako proposatutako langileen dedikazioa ez da oso proportzionala, eta, beraz, ezin da ziurtatu beteko denik.
- Oinarrizkoa: Faseetarako proposatutako langileen dedikazioak oinarrizko proportzionaltasuna du, eta, beraz, ez da nahikoa fase horiek gauzatzeko.
- Ez da aurkeztu edo ez dagokio: Proposamenak ez du jasotzen fase batzuetan eta besteetan diharduten langileen proportzionaltasuna.

22.2.2.- Formulak aplikatzearekin automatikoki balora daitezkeen irizpideak:

Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak proposamen ekonomikoarekin daude lotuta, hemen deskribatuko dugunaren arabera:

- Irizpidea: Proposamen ekonomikoa
  Haztapena: 48 puntu

49 puntu eslei daitezke guztira, eta 3 faseko formula progresiboa aplikatzen da, honako zehaztapen hauekin:

Lehen fasea – Gehienez 10 puntu

- 2 puntu emango dira aurkeztutako eskaintzak lizitazio-aurrekontuaren gainean duen % 1eko deskontu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

Bigarren fasea – 20 puntu gehienez (lehen faseko 10 puntu)

- Lehenengo fasean 10 puntu lortu ez dituzten eskaintzek 0 puntu izango dituzte fase honetan.
- Gainerako eskaintzetarako, 2 puntu emango dira lizitazio-aurrekontuaren gaineko % 1eko deskontu gehigarri bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

Hirugarren fasea – 48 puntura arte (lehen eta bigarren faseko 20 puntu)

- Bigarren fasean 20 puntu lortu ez dituzten eskaintzek 0 puntu izango dituzte fase honetan.
- Eskaintzetarako, proportzionala da gainerako 28 puntuak kalkulatzeko modua, formula hau erabiliz: Baloratu beharreko Eskaintzak eskuratutako puntuazioa = (28 Eskaintza ekonomiko lehiakorrena) / Baloratu beharreko eskaintza (BEZik gabe).

- Irizpidea: Prestakuntza
- Haztapena: 3 puntu

Doako prestakuntza eskaintzea baloratuko da, kontratuaren xedearekin lotutako gaiekin lotuta, SPRIk aukeratutako gaien, SPRIko edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako langileen arabera, honako esleipenak ardatz hartuta:

- Gutxienez 2 orduko iraupena izango duen 1 saio: 1,5 puntu
- Gutxienez 2 orduko iraupena izango duen 2 saio: 3 puntu.

Orientagarri izateko beste helbururik gabe, III.2 eranskinean proposatutako saiorako/saioetarako prestakuntza-proposamena zehaztuko da. Proposamen hori ez da baloratuko, proposatutako ordu kopuruari dagokionez izan ezik, eta kontratuaren xede diren arloekin lotutako gaiak landu beharko dira.

22.3.- Eskaintza anormalki baxuak

Printzipioz, eskaintza neurrigabetzat edo ausarkeriazko eskaintzatzat hartuko dira honako ezaugarriak dituztenak:

1.- Lizitatzaile bakarra lehiatu, eta eskaintza lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa bada ehuneko 35 unitate baino gehiagoko aldearekin.

2.- Bi lizitatzaile lehiatu, eta beste eskaintza baino baxuagoa dena ehuneko 30 unitate baino gehiagoko aldearekin.

3.- Hiru lizitatzaile lehiatu, eta aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino baxuagoak diren eskaintzak, baldin eta batezbestekoarekiko ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldea badute. Hala ere, batezbesteko hori kalkulatzeko, ez da aintzat hartuko zenbateko handieneko eskaintza, baldin eta batezbesteko hori baino handiagoa bada ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldearekin. Nolanahi ere, proportziorik gabekotzat hartuko da lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik ehuneko 35 unitate baino gehiago jaistea.

4.- Lau lizitatzaile edo gehiago lehiatu, eta aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino baxuagoak diren eskaintzak, baldin eta batezbestekoarekiko ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldea badute. Hala ere, batezbesteko hori baino altuagoak izan, eta batezbestekoarekiko aldea ehuneko 20 unitate baino handiagoa duten eskaintzarik badago, berriro kalkulatuko da batezbestekoa, kasu horretan ez dauden eskaintzak bakarrik aintzat hartuta. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batezbesteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzekin kalkulatuko da.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK: ez dira ezarri

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adierazten diren artxibo elektroniko edo gutun-azaletan aurkeztuko dira.

24.1.- A GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK.

Baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazitako dokumentuak aurkeztu behar dira gutun-azal honetan.

EKABen IV. Atalari dagokionez, eragile ekonomikoak **α atala** bakarrik bete beharko du. BAI

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA.

Gutun-azal honetan dokumentu hau/hauek aurkeztu behar da/dira:

- Eskaintza ekonomikoaren **III.1 ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera.
- Prestakuntza-eskaintza **III.2 ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera.

24.3.- C GUTUN-AZALA: EBALUATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUEN ESKAINTZA: (bai)

Gutun-azal honetan dokumentu hau/hauek aurkeztu behar da/dira:

- Dokumentuaren izena: Lantaldea
- Zer irizpideri lotzen zaion: Lantaldea

Dokumentuan sartu beharreko informazioa edo datuak: Zerbitzua eskaintzeko proposatzen diren pertsonen zerrenda. Eskainitako zerbitzuak emateko proposatzen den lantaldeko kide guztien curriculum vitaea gehitu behar da.

Era berean, esleipendunak gutun-azal honetan egiaztatu behar du proposatutako taldeko kide batek gutxienez, ingelesean C1 maila edo altuagoa duela, PTPko 4. puntuan adierazita dagoen moduan.

- Dokumentuaren izena: Memoria teknikoa
- Zer irizpideri lotzen zaion: Memoria teknikoa

Dokumentuan sartu behar den informazioa edo datuak: zerbitzuaren metodologia eta plangintza faseka eta zereginen arabera: zerbitzu orokorraren planteamendua eta ikuspegia, zerbitzuaren helburu zehatzen definizioa, zerbitzuen kalitatea eta jarraitutasuna bermatuko duten proposamenak, betiere Preskripzio Teknikoen Pleguko 3.puntuko «Garatu beharreko jardueren helburuak eta deskribapena» atalen edukia jasoz. Horrez gain, adierazi egin beharko da fase batzuetan eta besteetan diharduten langileen proportzionaltasuna. Gehienez, 40 orrialde.

C GUTUN-AZAL HONETAN EZ DA AIPATU EDO SARTU BEHAR FORMULAREN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ALDERDIEI BURUZKO DATURIK EDO DOKUMENTURIK, HAU DA, PREZIOARI EDO ESKAINITAKO PRESTAKUNTZARI BURUZKO DATU EDO DOKUMENTURIK.

24.4.- Aldaerak onartuta daude: ez

25.- ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako gainerako agiriekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira, hala dagokionean:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa: bai, honako hauek:

- **Ekonomia- eta finantza-kaudimena**:

  Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, honako dokumentu hauen kopia bat aurkeztu beharko da: (a) Onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, onetsitako eta dagokion erregistro ofizialean gordailututako kontuak; eta (b) auditoretza-txostena, hala badagokio.

  Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

  Aseguru-etxearen poliza edo ziurtagiria, arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua edo produktuaren erantzunkizuneko asegurua baduela egiaztatzen duena, eta gutxienez «9.- Aseguruak» klausulan ezarritako zenbateko bereko edo handiagoko kalteak estaltzen dituena. Gainera, hala dagokionean, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztu beharko du, kontratua egikaritzen den bitartean aseguruaren estaldura mantentzen dela bermatzeko, **VI. Eranskinean** oinarrituta.

- **Kaudimen teknikoa edo profesionala**:

  Lehiaketaren xede diren eta azken hiru urteetan egin diren antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, haien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiririk ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, haren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriekin batera.

25.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.6 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak badituela egiaztatzeko dokumentazioa: Bai, kontratua benetan gauzatzeko proposatutako giza baliabideak edo baliabide materialak dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK:

26.1.-Agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskabidea egiteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 4 egun lehenago.

26.1.2.- Lortzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 2 egun lehenago.

26.1.3.- Pleguei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea: ez

26.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusten da kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen den kasuetarako eta botere adjudikatzaileak prozeduran atzera egiten duen kasuetarako: Bai, 150 euro.

26.3.- Kontratua esleitzeko gehieneko epea, SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoa ez dena: ez

26.4.- Formalizazioaren aurretik aurkeztu beharreko beste agiri batzuk: ez

III.- BESTELAKO ZEHAZTASUNAK.

27.- KONTRATUA LAGATZEA. Kontratua lagatzeko, baldintza orokorretako 35.1.1 klausulan ezarritako kasuez gain, beste kasu batzuk ere aurreikusi dira: ez

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea hauxe da: kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazten dena eta baldintza tekniko partikularren pleguan zehazten dena.

Xedea lotetan zatiturik dagoenean, lote bakoitzaren xedea da kontratuaren klausula espezifikoen 1.2.2. klausulan adierazten dena eta baldintza tekniko partikularren pleguan zehazten dena.

CPVa eta prestazioa zer zerbitzu kategoriatan sartuta dagoen, kontratuaren klausula espezifikoen 1.3 eta 1.5 klausuletan adierazten dira.

Kontratua segidako traktukoa bada eta xedea osatzen duten prestazio unitateen kopurua zehatz adierazten ez bada, kontratistak gauzatu beharreko prestazio unitateak izango dira botere esleitzaileak eskatzen dituenak.

2.- KONTRATU IZAERA DUTEN AGIRIAK.

Dokumentu hauek kontratu izaera daukate:

a) Administrazio klausula partikularren plegua (AKPP).

b) Baldintza tekniko partikularren plegua (BTPP).

c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

d) Eskaintza.

e) Lan programa, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala adierazita badago.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Kontratua **administratiboa** da eta ondoren azalduko diren arau eta agirien arabera arautuko da.

3.2.- Kontratuaren agirietan aurreikusi ez den guztirako, ondoko hauek izango zaizkio aplikagarri kontratuari:

a) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL).

b) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO), SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

c) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzkoa, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

d) Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.

e) 2004ko abuztuaren 16ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legerian ezarritako prozedura eta jarduketa batzuk telematikoki izapidetzeari buruzkoa.

f) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, aplikatzekoa bada.

Ordezko moduan aplikatuko dira zuzenbide administratiboko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

3.3.- Alderdiek espresuki bete beharko dute kontratuaren agirietan ezarritako guztia.
Agiri horietan ezarritakoa ez ezagutzeak ez du salbuesten kontratista ezarritako hori betetzetik eta eskaintza aurkezte hutsarekin lizitatzaileak salbuespen edo erreserbarik gabe onartzen ditu agiri honetako klausula guztiak.

4.- HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNEN BAT DUEN PERTSONA KOPURU EDO PORTZENTAJE ESPEZIFIKO BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA DATUEN BABESA.

Ondoko erakundeetan, gai hauen inguruan indarrean diren betebehar eta xedapenei buruzko informazioa

eskura daiteke:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE - Emakumearen euskal erakunde autonomoa.

4.2.- Fiskalitatea: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru ogasunak eta Nafarroako Foru Erkidegokoa, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE Sozietate Publikoa.

4.4.- Enpleguaren babesa, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5.- Desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea eta desgaitasunen bat duen pertsona kopuru edo portzentaje espezifiko bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE erakunde autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIAZKO TRAMITAZIOA ETA AURREIKUSITAKO BALIOA

5.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan jasotzen dena da, eta, hala badagokio, klausula horretan zehazten diren urtekoetan eta loteetan banatzen da.

5.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazten den kontabilitate errubrikan, kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko behar den **kreditua** dago.

5.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera espedientea **tramitazio aurreratukoa** bada, dagokion ekitaldi ekonomikoan kreditu egoki eta nahikoa egoteak baldintzatuko du kontratuaren esleipena.

5.4.- Aurreikusitako balioa kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan jasotzen dena da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1.- Oroharreko prezioan zehaztutako kontratua: prezioa oroharreko sistemaren bidez zehazten zaien kontratuetan, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta prezio horrek inola ere ez du kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan jasotzen den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ barik) gainduituko.

6.2.- Prezio unitario bidez zehaztutako kontratua: kontratuaren prezioa zehazteko, kontuan hartzen baldin badira prestazioaren osagai desberdinei, gauzatze edo prestazio unitateei nahiz denbora unitateei dagozkien prezio unitarioak:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehazki definituta dagoenean: prezioa izango da esleipendunak eskainitako prezio unitarioa bider unitate kopurua egitearen emaitza.

b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehazki definituta ez dagoenean:

1) Unitate bakoitzaren prezioa izango da esleipendunak eskaintzen duena.

2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea zehaztuko da. Aurrekontu hau lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren parekoa izan ahalko da; dena den, esleipendunak lizitazioaren prezio unitarioak murriztea eskaini badu, kontratazio organoak zehazten duen proportzioan murriztu ahalko da.

Kasu horretan, aurrekontuaren gastu efektiboa botere esleitzailearen behar errealek baldintzatuta egongo da, eta esleitzaileak ez du unitate kopuru jakin bat eskatu beharrik izango, ezta aurrekontu osoa gastatu beharrik ere.

6.3.- Prezioa zehazterakoan sistema biak erabiltzen badira (oroharrekoa eta prezio unitarioena) prestazioaren zati desberdinetarako, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan xedatutakoari eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatutakoari jarraituko zaio.

6.4.- Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea esleipenaren ebazpenean zehaztuko da. Bertan, BEZa partida independente gisa adieraziko da, eta, hala badagokio, baita urte anitzeko banaketa ere.

6.5.- Kontratuaren prezioan edo prezioetan, aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak sartzen dira, bai eta kontratuaren baldintzak betetzearen ondoriozko edozein gastu ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioen berrikuspena, berez, kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala adierazita badago eta klausula horretan jasotzen den formula aplikatuz egingo da.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: kontratua gauzatzeko epea:

a) Eskaintzek ezin badute epe osoa edota epe partzialak murrizteko proposamenik egin: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan adierazten dena.

b) Eskaintzek epe osoa edota epe partzialak murrizteko proposamenik egin ahal izanez gero: esleipendunak eskaintzen dituenak.

Epe horiek SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira luzatu.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak: Kontratuaren eta, hala badagokio, epe partzialen iraupena, kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 eta 6.3 klausuletan hurrenez hurren adierazten direnak dira.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: kontratuaren klausula espezifikoen 6.4 klausulan hala xedatzen denean, kontratazio organoak kontratua luzatzea erabaki ahalko du, eta hori bete beharrekoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 198.6 artikuluan jasotzen den suntsiarazte kausa tartean ez badago behintzat. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat nahitaezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak aurrez jakinaren gainean jarri beharko du kontratua amaitu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenagotik.

Luzapena kontratazio organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta erabakitzeko prozeduran jarduketa hauek gauzatuko dira:

a) Kontratuaren sustapen organoaren txostena, kontratu harremana luzatu beharra dakarten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea zein diren zehaztuz.

b) Kontratistari entzuna izateko aukera emango zaio bost (5) egun baliodunetan.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontrol ekonomiko eta fiskalerako aurretiazko fiskalizazio txostena, salbuetsirik ez dagoenean.

e) Kontratazio organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK.

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan xedatutako formularen baten bidez eratu ahal izango da, eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatzen diren moduetan jarri beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua bete eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari dagokionez, behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio behin-behineko bermea, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatzen denaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko atalean xedatutako formulen bitartez eratu ahalko dira, eta prezioaren atxikipenaren bitartez, hori baimentzen denean, kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausularen arabera.

9.3.- Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez (hemendik aurrera, ABEE), ABEEko kide batek edo batzuek eratu ahal izango ditu/dituzte behin-behineko bermea eta behin betikoa, baldin eta, osotara hartuta, exijitutako zenbateko osora iristen bada, eta kide guztiei era solidario eta bateratuan bermatzen bazaie.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

10.1.- Kontratatzailearen profilean sartzeko, esteka hauek erabil daitezke: http://www.contratacion.euskadi.eus eta http://www.spri.eus//

10.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 eta 5. klausuletan agertzen diren helbide elektronikoen bitartez, interesdunek **kontsultak** egin ahal izango dituzte, **eta dokumentazio osagarria nahiz informazio gehigarria eskatu**. Kontsultak idatziz egingo dira, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan informazioa eskatzeko adierazten den muga egunera arte, eta kontsulta horiei kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan adierazitako muga egunera arte (egun hori barne) erantzun beharko zaie.

II.- LIZITAZIOA.

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1.- Kontratazio prozeduran parte har dezakete pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute eta kaudimen eskakizunak betetzen badituzte, edo, hala badagokio, sailkapenik badute; eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan jasotzen diren gaitasunak badituzte (baldin eta aipatutako klausulan adierazi bada gaitasuna(k) edukitzeko unea "eskaintzak aurkezteko azken data" dela).

Gainera, aurreko paragrafoan adierazitako eskakizunak betetzen dituzten zenbait pertsonak aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) bat osatuz parte har dezakete, legez xedatutako baldintzen arabera.

Soilik parte har dezakete SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek, Europako Erkidegoko nahiz Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetako operadore ekonomikoek eta SPKLren 67 eta 68.1 artikuluetan hurrenez hurren xedatutakoa betetzen duten baina Europako Erkidegokoak ez diren operadore ekonomikoek.

11.2.- Pertsona bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartzen ez badira behintzat. Orobat, pertsona batek ezin izango du beste pertsona batzuekin ABEE bat osatuz inolako proposamenik izenpetu baldin eta indibidualki beste bat egina badu, eta ezin izango da ABEE batean baino gehiagotan egon. Arau horiek urratzeak berekin ekarriko du pertsona horrek izenpetutako proposamenik bat ere ez onartzea.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 eta 20.8 klausulek gorde egiten badiete kontratua, hurrenez hurren, gizarteratzeko Enplegu Zentro Bereziei eta lanean txertatzeko enpresei, edo babestutako enpleguaren programen barruan egonez gero, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, edo erakunde jakin batzuei, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, soilik parte hartu ahal izango dute legez xedatutako baldintzak betetzen dituztenek (Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zena; abenduaren 13ko 44/2007 Legea, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena; eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

11.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eska daitezkeen enpresa nahiz lanbide ahalmen, kaudimen eta gaitasunarekin lotutako zirkunstantziak (klausula horretan dena delako eskakizuna beteta izan behar den unea "kontratua formalizatu aurretik" dela adierazten ez bada behintzat) eta kontratatzeko debekurik ezaren eskakizuna bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken datan, eta gauza bera kontratua betetzean.

Kontratazio mahaiak prozeduraren edozein unetan eska diezaieke lizitatzaileei ziurtagiri eta frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko, baldin eta gauzak ondo joateko beharrezkoa bada, kontratua esleitu aurretik. Era berean, eska diezaieke aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruz argibideak emateko, baita agiri osagarriak aurkezteko ere.

11.5.- Eskaintza bat aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak plegu honetako klausulak eta gainerako kontratuzko dokumentuak baldintzarik gabe onartzea, erreserbarik eta salbuespenik gabe, eta berekin dakar, baita ere, kontratazio mahaiak eta kontratazio organoak baimena edukitzea kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan nahiz Europar Batasuneko Estatu kide baten datu base nazionalean datuak kontsultatzeko, azken kasu horretan, datuak eskuratzea doanekoa bada. Aipatutako erregistro, zerrenda eta datu baseetako datuak egiaztatzeko, operadore ekonomikoak ez dira dokumentazioa aurkeztera behartuta egongo.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita, edo ofizialki itzulita, aurkeztu beharko da.

12.2.- Baliabideak.

12.2.1.- Baliabide elektronikoak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan kontratua esleitzeko prozedura tramitatzeko baliabideak ez direla elektronikoak izango adierazten ez bada behintzat, eskaintzak baliabide elektroniko bidez aurkeztuko dira LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez, zeina hemen baitago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN - EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PLATAFORMA - LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN

SISTEMA.

12.2.1.1.- Hauek dira erabilera baldintzak:

1. Administrazio baldintzak:

a) Tramitazio elektronikoaren ondorioetarako, EAEko Administrazioaren eskutik erabilera baimendua daukan ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektronikoak:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakunde Ordezkaria)
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakunde Ordezkaria)
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra, ziurtagiri hauekin oso jende gutxi sartu da aplikazioan)

b) Honako egoera hauetako batean egotea:

a. Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarreko ziurtapena edukitzea.

b. Behin-behineko gaikuntza sisteman alta emanda egotea.

c. Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkartuta lehiatzen badira ABEE bat formalki osatzeko konpromisoarekin, esleipendun aukeratzen badituzte: orduan ABEEa osatzeko konpromisoak behin-behineko gaikuntza sisteman erregistraturik egon behar du.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoen gaineko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak eta intzidentziak argitzeko laguntza zerbitzua: **945016298**.

12.2.1.2.- Aurkezteko modua:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazten diren dokumentuak dagozkien gutun azaletan sartu behar dira. Dokumentuok, aipatutako klausulari jarraituz, aplikazioan agertzen dira.

b) Honako luzapen hauekin gordetako dokumentuak bakarrik irakurri eta tramitatuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuan bidaltzea gomendatzen da.

d) Ulertuko da eskaintza bat aurkezpen epean jaso dela baldin eta transmisioa epe barruan hasten bada eta arrakastaz amaitzen bada.

12.2.2.- Elektronikoak ez diren baliabideak edo paperezkoak:

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Dokumentuak gutun azal itxietan eta operadore ekonomikoak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatuta aurkeztuko dira. Gutun azal bakoitzaren barrualdean bertan sartu diren dokumentuen aurkibide zenbakitu bat egongo da; gutun azal bakoitzaren kanpoaldean, berriz, honako datuak adieraziko dira:

1) Dena delako gutun azalaren identifikazioa (A, B, C eta beste), kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan xedatzen den eran.
2) Kontratuaren identifikazioa: espediente zk. eta xedea.
3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada bere izen soziala eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, berriz, bere izen-abizenak eta bere NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia adieraziko da.
4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

b) Gutun azalak lizitazio iragarkian zehaztutako epe barruan –data eta ordua– aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.1 klausulan adierazten den erregistroan, edo postetxean, ondoren aipatutako bulegoetara bidaltzeko.

Dokumentazioa postetxean aurkezten bada, lizitatzaileak bidalketaren berri eman beharko du; horretarako, mezu elektroniko bat bidali beharko du, egun berean, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan jasotzen den helbidera. Posta elektroniko bidezko jakinarazpena baliozkoa izan dadin, jasota geratu behar dira bidali izana eta jaso izana, baita noiz bidali eta noiz jaso den ere; gainera, ondo zehaztu behar da komunikazioen eduki osoa eta nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu behar da. Kopia espedienteari erantsiko zaio.

Bidalketaren jakinarazpenak kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa jaso behar du (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausularen a) letraren 2) eta 3) ataletan xedatzen den eran). Horrekin batera,

bidalketa egin izana frogatzen duen agiria –postetxean jasoa– gehitu behar da. Lizitazio iragarkian adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarota dokumentazioa jasotzen ez bada, dokumentazio hori ez da inola ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Esleipendun suertatu ez eta beren dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek eskaera bat luzatu beharko diote idatziz kontratazio mahaiko idazkariari –espediente zk. eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz–, eta SPRIren bulegoetara jo dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak entregatu aurretik, dokumentuok jasotzera joandako pertsonak, bere identitatea egiaztatzeko, NANa edo dokumentu baliokidea erakutsi beharko du, kontratuaren formalizazio datatik zazpi (7) hilabete errekurtsorik jarri gabe igarotakoan. Epe hori igarota dokumentazioa hilabeteko (1) epean jasotzen ez bada, dokumentazio hori suntsitu egingo da.

Prozeduran atzera egiten bada edo kontratua egiteari uko egiten bazaio, jarduketa berdinak egingo dira eta epe berdinak aplikatuko dira.

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Entregatutako dokumenturen bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek, modu esplizituan adieraziko dute hori –**II.3 ERANSKINA** betez–, eta argi islatu, gaininprimaturik edo orri bazterrean, konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan. Hala egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

II.3 ERANSKIN horretan, sekretu tekniko edo komertzialekin duten lotura dela-eta eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta aspektuak adierazteaz gainera, lotura hori justifikatzen duten arrazoi konkretuak azaldu behar dira.

Eskaintza ekonomikoa ez da inondik inora ere konfidentzialtzat joko. Eskaintza ekonomikoa konfidentzialtzat jotzen bada, egin gabekotzat joko da.

Konfidentzialtasun deklarazioa ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentu guztietara hedatu, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzen duten dokumentu guztietara ere. Kasu horretan, edo deklarazioa modu desegokian dimentsionatzen bada, kontratazio organoak zehaztuko du, modu arrazoituan, zein datuk edota dokumentuk merezi duten konfidentzialtzat hartzea. Modu berean jardungo du kontratazio organoak baldin eta deklarazioan jasotako arrazoiak ez badira behar bezain egoki eta funtsatuak lizitatzaileak konfidentzialtzat jotako informazioa halakotzat jotzeko.

Lizitatzaileak ez badu inolako daturik edota dokumenturik berariaz konfidentzialtzat jo, ulertuko da aurkeztutako dokumentuetatik bat ere ez dela konfidentziala; horrek ez du esan nahi, ordea, kontratazio organoak ez duenik, salbuespenez eta modu arrazoituan, konfidentzialtzat jo ez den informazioren bat halakotzat joko, enpresa interes legitimoak babeste aldera.

Era berean, behin eskaintzak aurkeztutakoan, aurkezteko garaian konfidentzialtzat jo ez ziren datuak ezin izango dira konfidentzialtzat jo.

Hasierako eskaintzan jasotzen ez zen dokumenturen bat esleitze prozeduran sartzen bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datuak edo agiriak konfidentzialtzat jo ahalko dira, klausula honen aurreko paragrafoetan deskribatutako eran.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Botere esleitzaileak, bai esleipen prozedurak dirauen bitartean bai kontratua esleituta eta formalizatuta dagoelarik, aurkeztu diren dokumentuak egiazkoak diren egiazta dezake. Datuak faltsuak izatea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke. Tartean halako arrazoi bat dagoenean, deuseztasun deklarazioa operadore ekonomikoari egozteko moduko ez-betetzetzat jotzen da, eta operadoreak berak botere esleitzailea indemnizatu behar du eragindako kalte-galerengatik.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu beharreko jarduketak.

12.5.1.1.- SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran zehaztutako izapide egintzak eta esleipen erabakia jakinarazi egingo dira.

12.5.1.2.- Komunikaziotzat joko dira argibide eskaerak, akatsak nahiz omisioak konpontzeko errekerimenduak, plegu honetan xedatutako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan jasotzen ez diren beste izapide egintza batzuk.

12.5.2.- Eskaintzak baliabide elektroniko bidez aurkeztea.

Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira.

12.5.3.- Eskaintzak baliabide ez-elektroniko bidez edo paperean aurkeztea.

Nolanahi ere den, **jakinarazpenak** baliabide elektroniko bidez egingo dira lizitatzaileak emandako helbide elektronikoa erabiliz, edo EAEko Administrazioaren egoitza elektronikoaren bidez, zeinetara helbide honen bitartez sartzen baita: https://euskadi.eus.

Halaber, baldintza orokorren 12.5.1.2 klausulan zehazten diren komunikazioak ere baliabide elektroniko bidez egingo dira, jakinarazpenetarako deskribatu den modu berean, kontratuaren klausula espezifikoetan besterik adierazten ez bada behintzat. Kasu horretan, posta elektronikoa baino ez da erabiliko lizitatzaileen errekerimenduei erantzuteko edo argipenak emateko, behar bezala sinaturik aurkeztu behar diren argipenak, adierazpenak edo bestelako dokumentuak lizitatzailea ordezkatzeko nahikoa ahalorde daukan pertsonak digitalki izenpetuta daudenean.

Jakinarazpen eta komunikazio ondorioetarako, **II.8 ERANSKINEAN** jasotzen den deklarazioa behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu behar da.

13.-A GUTUN AZALA: «AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK».

13.1.- Gutun azalean jaso behar diren dokumentuen zerrenda:

13.1.1.- Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (EKDB), behar bezala beteta. Dokumentua betetzeko, https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es helbidera eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategira jo beharko da. **II.1 RANSKINA**

Era berean, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotzen diren kasuetan, egoki diren EKDBak aurkeztuko dira.

13.1.2.- Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.3.- Baliabideak jartzeko konpromisoa, **II.2 ERANSKINEAN** jasotzen den ereduaren arabera.

13.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5. klausulan eskatuz gero, prestazioa gauzatzearen arduradun izango diren langileen izenak eta lanbide prestakuntza.

13.1.5.- Operadore ekonomikoak emandako informazioen artean, konfidentzialtzat jotzen direnak, **II.3 ERANSKINEAN** jasotzen den ereduaren arabera.

13.1.6.- Dagokionean, ABEE bat eratzeko konpromisoa, **II.4 ERANSKINEAN** jasotzen den eran.

13.1.7.- Kontratuaren xede den jardueran ibiliko diren langileekin operadoreak hartzen dituen konpromisoei buruzko deklarazioa, **II.5 ERANSKINEAN** jasotzen den ereduaren arabera.

13.1.8.- Enpresa talde bereko kide diren zenbait operadore ekonomikok, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluari jarraituz, eskaintza bat aurkezten badute, **II.6 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.9.- Kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausularekin bat etorriz, loterik egonez gero, **II.7 ERANSKINA** beteko da eskaintza zein edo zeintzuk lotetarako aurkezten den adierazteko; eta, kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulak zenbait lotetarako eskaintza integratzaileak aurkeztea baimentzen badu, eskaintza integratzailea zein lote konbinaziotarako aurkezten den adierazteko.

13.1.10.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak zehazten badu tramitaziorako baliabideak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.5.3 klausulan xedatutakoaren ondorioetarako, **II.8 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.11.- Europako Erkidegoko operadore ekonomikoez edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuez ari bagara eta kontratua Espainian bete behar bada, kontratutik zuzenki nahiz zeharka sortutako intzidentzia guztietarako Espainiako alor orotako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko

jurisdikzioko foroari uko egiten zaiola adierazten duen deklarazioa gehitu beharko da, hala badagokio.

13.1.12.- Europako Erkidegokoak ez diren zenbait operadore ekonomikoz ari bagara, SPKLren 68.1 artikuluan arautzen den txostena aurkeztu beharko dute. Era berean, kontratua Espainian bete behar bada, kontratutik zuzenki nahiz zeharka sortutako intzidentzia guztietarako Espainiako alor orotako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foroari uko egiten zaiola adierazten duen deklarazioa gehitu beharko da, hala badagokio.

13.2.- Kaudimen metaketa aldi baterako enpresa elkarteen kasuan:

ABEEaren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala zehazte aldera, kide den operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Baldin eta, kontratuaren klausula berezien 21.1 klausularen arabera, aipatutako klausulan adierazitako kaudimena 21.3 klausulan jasotako sailkapenarekin ordeztu badaiteke, eta ABEEan elkartzen diren operadore ekonomiko guztiek sailkapenik badute, zerbitzuen kontratista gisa dituzten sailkapen indibidualak metatuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapen globalera iriste aldera.

Hala ere, operadore guztien artean zenbaitek ez badauka sailkapenik, ulertuko da ABEEak kaudimen baldintzak betetzen dituela baldin eta, enpresa elkarteko kide guzti-guztien ezaugarriak metatuta, elkarteak baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazten diren kaudimen baldintzak.
- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

13.3.- Arau espezifikoak Europako Kontratazio Dokumentu Bakarrari dagokionez (EKDB):

13.3.1.- Kontratua lotetan zatituta badago eta hautaketa irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko baliabideak, lote batetik bestera aldatu egiten badira, EKDB bana aurkeztu beharko da lote bakoitzeko. Nolanahi ere, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak berdinak badira lote guztientzako, eta aldatzen dena baldin bada operadore ekonomikoaren eskaintzen xede diren loteen kopuruaren araberako baldintzak, EKDB bakarra bete beharko da lote guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen a) letran hala adierazten bada, operadore ekonomikoek EKDBaren II. zatiaren D atala bete behar dute, eta datu hauek adierazi:

- Azpikontratatzea aurreikusten **duten/dituzten kontratu zatia/k**.
- Azpikontratatzea aurreikusten duten zati horren edo zati bakoitzaren **portzentajea**.
- **Kontratistaren/kontratisten izena edo kaudimen profesionalaren zein teknikoaren baldintzen arabera zehaztutako enpresa profila.**

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen b) letran hala adierazten bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gainera, azpikontratatu beharreko pertsonaren EKDBa aurkeztu beharko dute (II. eta III. zatietako A eta B atalak behar bezala beteta), eta pertsona bat baino gehiago badira, azpikontratatu beharreko pertsona adina EKDB, behar bezala izenpetuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea: operadore ekonomikoak beste pertsona edo operadore batzuen kaudimenera edo baliabideetara jotzen duenean, operadore horrek bere EKDB propioa ez ezik, kaudimena eta bitartekoak eskuratzeko helburu dituen pertsona edo operadore bakoitzaren EKDBa ere aurkeztu beharko du (pertsona edo operadore adina EKDB), izenpetuta eta II. eta III. zatiko A eta B atalak behar bezala beteta; eta IV. zatikoak ere bai, hala badagokio.

13.3.4.- ABEE: zenbait operadore ekonomikok ABEE batean parte hartu nahi badute, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko EKDB bana aurkeztu beharko da, non II. zatitik lV.era bitartean eskatzen den informazioa jasoko den.

13.3.5.- Sailkapena: kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena kontuan hartu nahi denean, EKDBaren II. zatiaren A atalari dagozkion taldea/k, azpitaldea/k eta kategoria/k adierazi beharko dira, kontratazio mahaiko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapen hori jasotzen duen ziurtagiria.

13.3.6.- Baztertuta gelditzeko arrazoiak: III. zatiaren D atalean xedatutakoaren ondorioetarako, baztertuta gelditzeko arrazoi nazional hustzat jotzen dira honako hauek (SPKLren 71.1 artikuluaren d) letra):

- Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluaren arabera desgaitasunen bat daukaten pertsonentzat lanpostuen %2aren kuota gorde beharra ez betetzea.

- Ez betetzea Berdintasun plan bat izateko betebeharra, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluak agintzen duen bezala.

III.- GUTUN AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA.

14.- ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE ESKAERAK.

14.1.- Kontratazio mahaiak, **arrazoitutako balorazio baten ondoren, eskaintzak baztertzea erabakiko du**, baldin eta:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazitakoa ez den beste gutun azal batean dokumenturen bat aurkezten bada eta horrek eskaintza isilpekoa izatea arriskuan jartzen badu.

b) Edukia erabateko ziurtasunez ezagutzea eragozten duten kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak baldin badauzkate.

c) Aztertutako eta onartutako dokumentuekin bat ez badatoz.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko prezio unitarioak gainditzen badituzte.

e) Plegu honetan jasota dagoen eskaintza ekonomikoaren eredua funtsezko eran aldatzen badute.

f) Zenbatekoan akats nabarmenik ageri badute.

g) Lizitatzaileak onartuta, eskaintza bideraezina egiten duen akats edo ahultasunen bat badute.

h) AKPPan edo BTPPan zehaztutako baldintzak nahiz eskakizunak betetzen ez badituzte.

i) Irakurtzea edo edukia eskuratzea galarazten duen birusik baldin badaukate.

j) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan tramitazio bitartekoak "ez-elektronikoak" izango direla xedatzen bada eta eskaintza lizitazio iragarkian zehaztutako epea amaitu ondoren aurkezten bada.

k) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan tramitazio bitartekoak “ez-elektronikoak” izango direla xedatzen bada eta baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan adierazitako epearen ondoren egiten bada bidalketa.

l) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan tramitazio bitartekoak “ez-elektronikoak” izango direla xedatzen bada eta eskaintza kanpotik identifikatu gabeko (A, B, C) gutun azaletan aurkezten bada, edo gutun azalak (B, C) itxi barik aurkezten badira.

14.2.- Esleipen proposamena formulatu baino lehen, kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak ondo ulertzeko behar diren **argibideak**. Argibideak ematean lizitatzaileek ezin izango dute inondik inora ere aldatu eskaintzan adierazitako ezer.

15.- AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, A gutun azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko bilduko da kontratazio mahaia.

Mahaiak ondorioztatzen baldin badu aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko, prozeduran lizitatzaile guztiak onartzea erabakiko du.

Kontratazio mahaiak aztertutako dokumentazioan akatsak edo omisioak daudela ikusten badu, hiru (3) egun balioduneko epea emango die lizitatzaileei detektatutako akatsa edo omisioa konpontzeko behar diren dokumentuak aurkez ditzan.

Epea igarotakoan, kontratazio mahaiak konpontze fasean aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta lizitatzaileak onartzea edo baztertzea erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakitzen badu, erabaki horretan bazterketaren arrazoiak jasoko dira.

15.2.- Lizitatzaile onartuen eta baztertuen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta azken kasu horretan, bazterketaren arrazoiak adieraziko dira.

16.- JUDIZIO BALIOA APLIKATZEA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BITARTEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA.

16.1- Irekiera publikoa.

Kontratazio mahaiak, jendaurreko saioan, lizitatzaile onartuen eta baztertuen berri emango du eta, ondoren, lizitatzaile onartuek aurkeztutako C gutun azalak irekiko ditu.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio mahaiak ebaluatzea.

Kontratazio mahaiak erabaki ahal izango du dokumentazioa kontratua sustatzen duen departamentura bidaltzea, departamentu horrek egiazta dezan eskaintzetan ez dagoela BTPPan zehazten diren espezifikazioen kontrako edukirik, eskaintzok balora ditzan, eta dagokion txostena egin dezan.

Ebaluazioa egitean departamentuak egiaztatzen badu eskaintzaren bat pleguen kontrakoa dela edo beste gutun azal baten barruan aurkeztu beharreko dokumentuak edo datuak dituela, hori txostenean jasoko du. Formulatu ondoren, kontratazio mahaiari helaraziko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Kasu berezia: adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulan xedatzen bada adituen batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat osatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, kontratazio mahaiak dokumentazioa bidaliko dio izendatutako organoari, ebaluazioa eta txostena egin ditzan. Formulatu ondoren, kontratazio mahaiari helaraziko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- FORMULA BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

17.1.- IREKIERAREN AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio judizioa behar duten irizpideak erabiltzen badira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan xedatutako kasu orokorrean, B gutun azalak ireki baino lehen, kontratazio mahaiak honela jardungo du:

Izaera publikoa duen bilera zatia hasi aurretik:

- Kontratua sustatzen duen zerbitzuak egindako balorazio txostena aztertuko du, eskaintzak baloratuko ditu, eta puntuazioak emango.
- Baldintza orokorren 14.1 klausulan xedatutako kasuetan, eskaintzak baztertzea erabakiko du.

Izaera publikoa duen bilera zatia hasitakoan:

- Eskaintza bakoitzari emandako puntuazioaren berri emango die bertaratutakoei, eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzak zein diren eta zergatik baztertu diren jakinaraziko die.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan xedatutako kasu berezian, irekieraren aurretik, kontratazio mahaiak adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak emandako puntuazioen berri emango du, eta, hala badagokio, zein eskaintza baztertu diren eta zergatik jakinaraziko du.

17.1.2.- Ez bada balio judizioa behar duen irizpiderik erabiltzen.

Irekieraren aurretik, kontratazio mahaiak ezagutzera emango du zein izan diren onartutako lizitatzaileak eta zein baztertutakoak.

17.2.- GUTUN AZALAK IREKI ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio mahaiak, aurretiazko jarduketak egin ondoren, eskaintzak baztertu ez zaizkien lizitatzaileek aurkeztutako B gutun azalak irekiko ditu bilera publikoan, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA.

Ondoren, kontratazio mahaiak jarduketa hauek egingo ditu beharrezkoak diren bileretan:

18.1.- Egiaztatuko du ea baldintza orokorren 14.1 klausulan eskaintza bat baztertzeko xedatzen den arrazoietakoren bat dagoen eta, hala badagokio, dagokion bazterketa erabakia hartuko du.

18.2.- Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoen 22.3 klausulan xedatutako mugak gainditzen dituzten, eta baten batek gainditzen baditu, SPKLren 149.4 artikuluan xedatutako

jarduketak gauzatuko ditu. Kontratazio mahaiak entzuna izateko epea zehaztuko du, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuz. Epe hori ez da hiru (3) egun baliodunetik beherakoa izango, ezta hamar (10) egun baliodunetik gorakoa ere.

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio mahaiaren ustez bete ezin den/diren eskaintzaren/eskaintzen onarpena edo bazterketa kontratazio organoari proposatzea erabakiko du.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu, eta eskaintza bakoitzak esleipen irizpide guztietan eskuratutako puntuak batuz zehaztuko du zein den onena.

Kalkulua egiteko, ez du kontuan hartuko baztertzea proposatu duen eskaintzarik.

Eskaintza bik edo gehiagok puntuazio bera eskuratzen badute, eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzaileei eskatuko die berdinketa ebazteko irizpideak –hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan adierazi direnak– betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean aurkez ditzaten. Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez bada irizpide espezifikorik xedatu, baldintza orokorren 19. klausulan berdinketa ebazteko jasota dauden irizpideei jarraituko zaie.

19.- BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan xedapenik egon ez eta kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren eskaintza bat baino gehiago berdinduta badaude, berdinketa hori ebazteko, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkion irizpide sozial hauek aplikatuko dira ordenan:

a) Lizitatzaileen langile zerrendetan aztertuko da desgaitasunen bat daukaten pertsonen eta gizartean baztertuta dauden pertsonen portzentaje handiena zein den, eta berdinketa egonez gero, lehenetsiko da langile zerrendan desgaitasunen bat daukaten langile finkoen kopururik handiena, edo langile zerrendan inklusioan dauden langileen kopururik handiena.

b) Lizitatzaileen langile zerrenden artean aztertuko da zeinek duen aldi baterako kontratuen portzentajerik txikiena.

c) Lizitatzaileen langile zerrenden artean aztertuko da zeinek duen emakume langileen portzentajerik handiena.

d) Aurreko irizpideen aplikazioak ez balu berdinketa ebatziko, zozketa egingo litzateke.

Irizpideok aplikatzearen ondorioetarako, lizitatzaileek egiaztatu egin beharko dituzte, hala badagokio, lan kontratuen bitartez, Gizarte Segurantzako kotizazio dokumentuen bitartez eta aurrez aipatutako irizpide sozialak egiaztatzen dituen beste edozein agiriren bitartez.

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

20.- ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Kontratazio mahaiak puntuazio handienekotik txikienekora sailkatuko ditu eskaintzak, eta, sailkapen horretan oinarrituz, dagokion esleipen proposamena helaraziko dio kontratazio organoari.

Kontratazio organoak onartu egingo du kontratazio mahaiaren proposamena.

21.- ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

21.1.- Kontratazio organoak esleipen proposamena onartutakoan, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epean –errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita– honako dokumentu hauek aurkezteko:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera:

1.1. Pertsona juridikoak diren espainiar lizitatzaileen jardute gaitasuna eraketa agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze aktaren bidez egiaztatuko da, zeinean haien jarduera erregulatzen duten arauak jasota egongo diren; gainera, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egongo dira.

1.2. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatua duten Estatuetako nazionalak diren lizitatzaile ez-espainiarrek SPKLren 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3. Gainerako lizitatzaile atzerritarrek SPKLren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordetzea: eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietate bat edo pertsona juridiko bat bada, sinatzaileak horretarako behar adinako ahalordea aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridiko bat bada, ahalorde hori behar bezala inskribaturik egon beharko da dagokion erregistro publikoan, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikatzekoa den araudiari jarraituz, inskribatzea derrigorrezkoa bada.

3.- Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera kaudimen eskakizun batzuk betetzea derrigorrezkoa denean, lizitatzaileak kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar du eskakizunok betetzen direla egiaztatzeko, eskakizunen lekuan sailkapena jarri ez bada behintzat.

4.- Enpresa edo lanbide gaitasuna: kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan adierazten denean eskaintzak aurkezteko azken datan gaitasuna eduki beharra zegoela.

5.- Kontratua betetzeko jarri beharreko baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri izateko lizitatzaileak bere gain hartu duen betebeharra, hala badagokio: kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan adierazten den dokumentazioa.

6.- Kontratua indarrean dagoen bitartean beste erakunde batzuen baliabideak eta kaudimena eskuragarri izatea: lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenaz eta baliabideez baliatu bada, **IV.1 ERANSKINEAN** jasotzen den **"Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak eskuragarri izateko konpromisoa"** aurkeztu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik ez egotea: tartean kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera (**IV.2 ERANSKINA**).

8.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea: sektore publikoarekin kontratuak egiteko zerga betebeharrak egunean izatearen egiaztagiriak eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Atzerriko lizitatzaileek euren jarduera burutzen dizuzte tokiko (Espaina barruan edo kanpoan) zerga eta Gizarte Segurantzako (edo baliokidea) betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak eman beharko dituzte.

9.- Bermea: behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria eratu izanaren frogagiria (kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausula exijitu ez denean izan ezik).

10.- Publizitate gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala adierazi bada, dagokien publizitate gastuak ordaindu izanaren frogagiria.

11.- Kontratu erreserbatuak: baldin eta, kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 edo 20.8 klausulen arabera, kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

12.- Aurrez kopia soil bidez aurkeztutako dokumentuen artean eska litezkeen jatorrizkoak, hala badagokio.

Egiaztagiriak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematiko bidez egin daitezke.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan aipatzen diren erregistro, zerrenda eta datu baseetan inskribatzeak klausula horretan adierazitako ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu base horietan jasotzen diren datuak egiaztatzeari dagokionez, baldin eta datuok eskuratzea doakoa bada.

21.2.- Eskakizuna adierazitako epean betetzen ez bada, eskaintza kendu egin dela ulertuko da. Kasu horretan, honelaxe jardungo da:

- Zigor gisa, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3aren zenbatekoa (BEZa alde batera utzirik) exijituko da, lehenik behin-behineko bermearen kontra gauzatuko dena –halako bermerik eratuta balego–; horrek ez du esan nahi, ordea, SPKLren 71.2 artikuluaren a) letran xedatutakoa beteko ez denik.
- Hurrengo lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio bera bilduko da, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz.

22.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

22.1.- Kontratazio organoak esleipen proposamenean biltzen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleitu beharko du kontratua.

22.2.- Lizitatzaileei esleipenaren ebazpena jakinaraziko zaie, eta horrekin batera, hala badagokio, baita honako hauek ere: eskaintzaren zenbait zatiren balorazio txostena, baldin eta zatiok ebaluatzeko, balio judizio bat egitea eskatzen duten irizpideak erabili behar izan badira; eta baxuegiak diren eskaintzen justifikazioaren analisi txostena. Txostenok kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- 44. artikuluaren errekurtso berezi baten ebazpenak jasotzen duen edukiaren ondorioz kontratazio organoak erabakitzen badu kontratua beste lizitatzaile bati esleitzea, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio baldintza orokorren 21. klausulan jasotzen den dokumentazioa aurkezteko.

22.4.- Nolanahi ere, esleipena baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko da.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

23.1.- Kontratua formalizatuko da SPKLren 153. artikuluan xedatzen diren baldintza eta epeetan, aurrez dokumentu hauek aurkeztu ondoren:

a) Esleipendunak ABEE bat osatuz lehiatu direnean, ABEE horren eraketa eskritura publikoa.

b) Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan, hala badagokio, espezifikoki exijitzen diren aseguru kontratuen polizak, zeinetan kontratista, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan adierazitako botere esleitzailea jasoko diren pertsona aseguratu gisa. Gainera, poliza horiek ordaindu izanaren frogagiria/k aurkeztu beharko da/dira.

Esleipenduna ABEE bat izango balitz, aurkeztu beharreko aseguru kontratuen polizak, ABEEaren izenean egon beharko dira.

c) Enpresa eta lanbide gaitasuna, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan hala zehazten bada eta klausula horretan adierazi bada gaitasun hori eduki behar dela kontratua formalizatu aurretik.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 26.4 klausulan adierazten den dokumentazioa, hala badagokio.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, formalizazioa amaitu eta, gehienez ere, ondorengo hamabost (15) egunen barruan. Era berean, kontratua erregulazio harmonizatuari lotuta dagoenean, formalizazio iragarkia bidali egingo da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, formalizazioa amaitu eta, gehienez ere, hamar (10) eguneko epean.

23.3.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ezin izan bada formalizatu legez adierazitako epeetan, honelaxe jardungo da:

- Zigor gisa, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3aren zenbatekoa (BEZa alde batera utzirik) exijituko zaio, lehenik behin-behineko bermearen kontra gauzatuko dena –halako bermerik eratuta

balego–; horrek ez du esan nahi, ordea, SPKLren 71.2 artikuluaren b) letran xedatutakoa beteko ez denik.

- Eskaintzen arteko sailkapenaren ordenari jarraituz, hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, aurrez baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotzen den dokumentazioa eskatu eta aurkeztu ondoren.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eratzea exijitu bada, kontratua formalizatu ondoren, bermea automatikoki azkenduko da eta kontratista suertatu ez diren lizitatzaile guztiei berehala itzuliko zaie. Itzulketa egiteko, aurkezteko erabilitako araubide berbera erabiliko da.

V.- KONTRATUA GAUZATZEA.

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.2 klausulan adierazitako organoak kontratuari segimendua egiteko eta gauzatzeko funtzioen kalterik gabe, lanak gainbegiratu eta ikuskatzea kontratuaren arduradunari dagokio, zeinak honako funtzio hauek beteko dituen:

a) Kontratazio organoari baldintza orokorren 25.2 klausulak xedatzen duen lan programa onartzeko proposamena egitea.

b) Idatziz, prestazioa egoki egingo dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak ematea.

c) Baldintza orokorren 32.1 klausulan xedatzen diren zerbitzuen ziurtapena/k onartzea.

d) Prestazioa behar bezala gauzatu eta hartu izana berrestearekin loturik, baldintza orokorren 32.2 klausulan adierazten diren funtzioak.

e) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain harturiko betebeharrak betetzen direla gainbegiratu eta egiaztatzea, gerta litezkeen ez-betetzeak kontratazio organoari jakinaraztea eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko proposamenak egitea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera kontratua gauzatzeko jarri beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzea baimentzea.

g) Egin beharreko aldaketak egitea proposatzea.

h) Kontratistari kontratua betetzeko jarritako langileen lan baldintzei buruzko datuak eskatzea.

i) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea, kontratuak dirauen bitartean hirugarren erakundeen baliabideak edota kaudimena badituela egiaztatzeko, kontuan izanik kaudimen edota baliabide horiek izan zirela kontratua esleitzeko prozeduran parte hartzeko oinarria.

j) Kontratistak azpikontratistekiko edota hornitzaileekiko ordainketa betebeharra betetzen duela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Kontratua betetzean atzerapenik badago, atzerapena kontratistari egotz dakiokeen zehaztuko duen txosten bat egitea.

l) Lagapenari eta ABEEko kideen aldaketari buruz baldintza orokorren 35. klausulan jasotzen diren txostenak lantzea.

m) Kontratistari eskatzea akta bidez egiaztatzeko kontratua gauzatu ondoren euskarri guztiak bueltatu dituela, edo datu pertsonalak gordetzen zituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela.

Kontratuaren arduradunaren izendapena aldatuz gero –kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.3 klausulan jasotzen den legez–, idatziz eta berehalaxe jakinaraziko zaio kontratistari.

25.- ZERBITZUAK GAUZATZEA.

25.1.- Kontratu izaerako dokumentuei eta jarraibideei lotzea.

Zerbitzuak gauzatuko dira kontratuzko dokumentuetan xedatutakoari, kontratistaren eskaintzari eta kontratuaren arduradunak, gauzapenean edo interpretazioan, idatziz ematen dituen jarraibideei jarraituz.

25.2.- Lan egitasmoa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala exijitzen bada, kontratistak lan egitarau bat entregatu beharko dio kontratuaren arduradunari, zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratua formalizatu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Egitarau horretan, BTPPan dagokion klausulan zehaztutako datuak eta informazioa jasoko dira.

Lan egitarauak AKPPan, edo, hala badagokio, eskaintzan zehaztutako epeak beteko ditu, eta kontratazio organoak onartuko du hamabost (15) egun balioduneko epean.

25.3.- Baimenak.

Prestazioa gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, hala publikoak nola pribatuak, kontratistak eskuratu behar ditu, eta bere gain hartu behar du horretarako sortzen diren gastuen ordainketa.

25.4.- Aseguruak.

Kontratistak nahitaez kontratatu behar ditu derrigorrezko aseguruak; gainera, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan xedatzen direnak ere, hala badagokio, kontratatuta eduki behar ditu.

25.5.- Lankidetza.

Kontratistak botere esleitzaileari eskaini behar dio, inolako kostu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea betetzeko eta egoki garatzeko behar adina zerbitzu profesional; horien artean, azalpen bileretara joatea, publikoari zuzendutako informazioa… baita kontratuaren arduradunari prestazioa gauzatzen den lekuetara libre sartzen uztea ere.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratistak bere gain hartu behar du egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen nahiz zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, bai eta ez-egiteak, errakuntzak, metodo desegokiak nahiz oker amaitutakoak direla-eta esleitzaileari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

25.7.- Indemnizazioa obra proiektuak egiteko kontratuetan.

Baldin eta kontratista kontsultoreari egotz dakizkiokeen errakuntza edo ez-egiteengatik obraren benetako kostua proiektuan aurreikusitako aurrekontuaren aldean %20 gehiago edo gutxiago desbideratzen bada, kontratistak botere esleitzailea indemnizatuko du SPKLren 315. artikuluan xedatutako baremoaren arabera.

26.- GAUZATZEKO ERABILITAKO BITARTEKOAK.

26.1.- Baliabideak jartzeko konpromisoa.

Kontratua betetzeko, kontratista behartuta dago baliabideak jartzeko konpromisoan adierazten diren baliabideak jartzera (**II.2 ERANSKINA**); baita kontratu izaerako dokumentuetan zehaztutako baldintzen eta epeen arabera kontratua betetzeko behar diren baliabideak jartzera ere.

Adierazitako baliabide materialak soilik ordeztu ahalko dira baldin eta aldez aurretik kontratuaren arduradunari jakinarazten bazaio, eta arduradun horrek, aurkeztutako dokumentuen bitartez, egiaztatzen badu proposatutako baliabideak eskakizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun baliodunen barruan baimena ematen badu. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabide horrek ez dituela eskakizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiari eusten dioten arrazoiak zein diren adieraziz. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Giza baliabideak ordezteko bide bakarra klausula honetan xedatutakoa betetzea izango da. Nolanahi ere, ordezpenaren ondorioz lan ingurunera egokitzeko unean sor litezkeen eragozpenak konpontzeko, ordeztutako pertsonak eta lanean sartzen denak batera lan egiteko aldiak zehaztuko dira, kostu gehigarririk gabe, behar den denborarako.

Ordezpena, prozedura honi jarraituz eta baldintza hauekin egingo da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: baldin eta, justifikatutako arrazoiak tarteko, ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, hamabost (15) egun baliodun baino lehenagotik –aldi baterako lanerako ezintasun eta heriotza kasuetan izan ezik–, honako datu hauek adieraziz:

- Ordeztu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezpenaren arrazoia.
- Eskatzen diren baldintzak betetzen dituen hautagai baten proposamena, hori egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena egitea baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela eskakizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiari eusten dioten arrazoiak zein diren adieraziz. Kontratistak beste hautagai bat proposatu ahal izango du.

b) Botere esleitzaileak eskatutako aldaketa: ordezpenen bat egitea beharrezkoa ikusten badu kontratua behar bezala betetzeko, kontratistari idatziz jakinaraziko dio, arrazoiak adieraziz. Hamabost (15) egun balioduneko epean, eskakizunak betetzen duen hautagai bat gutxienez proposatuko du kontratistak, hori egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena egitea baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela eskakizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiari eusten dioten arrazoiak zein diren adieraziz. Kontratistak hautagai berri bat proposatu beharko du, aurreko atalean adierazten den eran.

Arau berberak aplikatuko dira, era berean, kaudimena egiaztatzeko jarritako baliabideei dagokienez, baldin eta kontratistak beste erakunde batzuen kaudimenera edota baliabideetara jo badu lizitazio fasean.

26.2.- Langileei buruzko arau espezifikoak.

Zerbitzua ematera atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira esklusiboki, eta kontratistak bere enplegatzaile izaerari datxezkion eskubide eta betebeharrak edukiko ditu. Ondorio horietarako, honako betebeharrak hartuko ditu bere gain:

a) Kontratua betetzeko jarri behar dituen langileak hautatzea; horrek ez du esan nahi, ordea, botere esleitzaileak ez duenik ahalmenik izango pleguetan –hala badagokio– jasotzen diren prestakuntza pertsonaleko eskakizunak betetzen diren egiaztatzeko.

b) Langileen egonkortasunari eustea, eta langile zerrendaren osaeran izan daitezkeen aldaketak noizean behingoak eta justifikatutako arrazoiekin lotutakoak izatea, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez kaltetze aldera (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean), botere esleitzaileari informazioa uneoro emanez.

c) Kontratua betetzeko jarritako langileengan, enplegatzaile orori datxekion zuzendaritza boterea modu erreal, eraginkor eta etengabean erabiltzea. Zehazki, bere gain hartuko du soldaten gaineko negoziazioa eta soldaten ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak; absentzia kasuetan ordezpenak egitea; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak –kotizazioen ordainketa eta prestazioen ordainketa ere bai, hala dagokionean–; laneko arriskuen prebentzioari lotutako betebeharrak; diziplina ahalmenaren erabilera; baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu harremanetik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak ere.

d) Kontratua betetzeko jarritako langileek pleguan kontratuaren xede gisa mugatzen den jarduerarekin lotutako funtzioetan neurria gainditu barik jardungo dutela bermatzea.

e) Langile zerrenda barruan dagoen koordinatzaile bat gutxienez izendatzea, zeregin hauek betetzeko:

- Kontratistaren eta botere esleitzailearen arteko solaskide lanak egitea, alde batetik, kontratistaren eta kontratuari atxikitako langileen eta, bestetik, botere esleitzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua betetzearen ondoriozko gai guztietan.
- Langileen artean lana banatzea eta prestazioa ondo gauzatzeko eman beharreko lan agindu eta jarraibideak ematea.
- Langileek bete beharreko funtzioak zuzen betetzen direla ikuskatzea, eta langileak lanpostura bertaratzen direla kontrolatzea.
- Opor araubidea antolatzea.

f) Botere esleitzaileari informazioa ematea kontratua betetzeko jarritako lantaldearen osaeran gerta daitezkeen noizean behingo aldaketei buruz edo aldaketa iraunkorrei buruz.

26.3.- Lan baldintzei buruzko informazioa.

Kontratistaren betebeharra da kontratuaren arduradunari ondoko ataletan adierazten diren datuak eta dokumentuak ematea, kasu bakoitzean adierazten diren epeen eta baldintzen arabera:

a) Kontratua betetzeko jarritako langile bakoitzaren lan baldintzei buruzko datuak: posta elektroniko bidez aurkeztuko dira, **II.5 ERANSKINEAN** jasotzen den erantzukizunpeko adierazpenaren galdetegia behar bezala beteta, dagokion errekerimendua jasotzen den egunetik zenbatzen hasi eta zazpi (7) egun balioduneko epean.

b) Emandako datuen benetakotasuna egiaztatze aldera eta kontratistak, enplegatzaile gisa, bere gain hartzen dituen lan obligazioak betetzen direla egiaztatze aldera, kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneatutako kopia bidez, dagokion errekerimendua jasotzen den egunetik zenbatzen hasi eta hamar (10) egun balioduneko epean.

Kontratuaren arduradunak, kontratua indarrean dagoela, edozein unetan eska dezake informazio hori, eta bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

26.4.- Kontratua gauzatzeko lekua.

Prestazioa gauzatuko da botere esleitzaile kontratatzailearenak ez diren bulego edo instalazioetan. Hori ezinezkoa bada, plantillen arteko nahasteak ekiditeko, kontratistaren langileek, zirkunstantzia konkretuek galarazten ez badute behintzat, ez dute botere esleitzailearen zerbitzura diharduten langileekin ez espaziorik ez lekurik partekatuko, eta gainera, kontratistaren langileak eta baliabideak dagozkien zeinu bereizgarrien bidez identifikatuko dira, esaterako, uniformetasunaren zein errotulazioen bidez.

26.5.- Ukigabetasun araua.

Kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak bete ez dituela-eta botere esleitzaileari, kontratistarekin batera, diru zenbatekoren batzuk ordaintzeko zigorra ezartzen bazaio, kontratistari jasanaraziko dio ordaindutako zenbatekoa, egoki diren legezko ekintzen bitartez.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Lan araudiaren arabera egoki balitz langileak subrogatzea, zerbitzua ematen ari izan den kontratistari ez baina beste operadore ekonomiko bati esleitzen bazaio kontratua, zerbitzua ematen ibilitako kontratistak bere gain hartu beharko ditu subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatak, eta baita sorrarazi diren Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi. Betebehar hori ez da inola ere kontratista berriarena izango.

Kasu honetan, aipaturiko soldatak ordaindu gabe daudela egiaztatzen bada, botere esleitzaileak zor diren zenbatekoak atxikiko dizkio kontratistari aipatutako soldaten ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREKIN, ETA LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOAN

Kontratistak lanaren arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, ondoko hauek bereziki:

27.1.- Gauzatu beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak ordenantza edo hitzarmen horretan jasotako xedapenak bete behar ditu.

27.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun eta higiene neurri guztiak hartuko ditu.

27.3.- Halaber, indarreko araudian lan arriskuak prebenitzeko xedatutako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, ondoko betebehar hauek betetzen dituela frogatu behar du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio antolamendua ezartzea.

b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzea; horretarako, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren arabera landutako lan arriskuen prebentzio plan bat ezarri eta aplikatuko du. Eskakizun hori egiaztatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen segurtasun eta osasun sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarrituz laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukita, baldin eta sistema horrek eskatzen diren neurriak betetzen diren edo ez ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori betetzen dela.

c) Kontratatutako jarduerari dagozkion arriskuak ebaluatzea eta prebentzio jarduera planifikatzea.

d) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan xedatutako kontsulta eta parte hartzea nola gauzatu arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun neurriak betetzen diren kontrolatzeko eta kontrol hori arautzeko prozedura bat edukitzea eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina neurriak hartzea.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio baliabideak edukitzea eskatzen duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.

g) Kontratuaren gauzapenean esku hartzen duten langile guztiek, hala enpresakoek nola kanpokoek, lanean hasterakoan arrisku espezifikoei, babes neurriei eta larrialdi neurriei buruzko informazioa jaso izana, bai eta bakoitzaren jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko prestakuntza ere (31/1995 Legearen 18 eta 19. artikuluak), laneko arriskuak prebenitzeko planaren prozedurari jarraituz. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza egokia eman izana.

h) Beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria edukitzea.

i) Jangela eta atseden zerbitzu egokiak, higiene zerbitzuak eta jantziak ematea, langile kopurua eta lan eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden egunak errespetatuz eta aparteko orduak kasu berezietan bakarrik sartuz.

27.4.- Kontratistak kontratuaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratei, eta botere esleitzaile kontratatzaileari entregatu.

27.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, kontratistak indarreko arauek xedatutakoa bete beharko du; kontratistak bere gain hartuko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere esleitzaileak.

28.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek, eta baita kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasotakoak ere, bai kontratistak bai azpikontratistek bete beharko dituzte.

28.1.- Hizkuntza baldintzak.

28.1.1.- Botere esleitzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzearen ondorioetarako, "normalean euskara erabiliko da" diogunean, zera ulertzen da:

a) Ahozko komunikazioetan, kontratua gauzatzeko eginkizunetan diharduten langile euskaldunak euskaraz zuzenduko zaizkio botere esleitzaileari hasieran. Botere esleitzailea euskaraz zuzentzen bazaie kontratua betetzeko izendatutako langileei eta langile horiek ez badute euskaraz behar bezain ondo egiten, kontratua betetzeaz arduratzen den enpresak berehala jarriko ditu behar diren baliabideak edo hizkuntza gaitasun nahikoa duten langileak kontratua betetzearen ondoriozko harremanean botere esleitzailearekin euskaraz jardun ahal izateko.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak eta hartzaileak euskara hautatzen dutenean izan ezik.

28.1.2.- Kontratua gauzatzeak hirugarrenei edo herritarrei zerbitzu eman beharra edo haiekin harremanetan jarri beharra badakar, kontratua gauzatzeko orduan enpresa kontratistak erabiltzaileekin edo beste pertsona batzuekin harremanak izatean, kasu bakoitzean erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Hizkuntzetako bat berariaz hautatu ez bada, kontratua betetzeaz arduratzen den kontratistak bi hizkuntza ofizialetan zuzenduko dizkie jakinarazpenak eta orotariko komunikazioak (fakturak eta bestelako trafiko agiriak barne) pertsona fisiko eta juridikoei. Horrek ez du esan nahi, ordea, herritarrek hizkuntza hautatzeko eskubidea noiznahi baliatu ezin izango dutenik eta soilik hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea eskatu ahal izango ez dutenik.

Nolanahi ere, kontratistak behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarriko ditu zerbitzuaren hartzaileei zuzendutako arreta, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz izan dadin.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz esleipendun berria kontratu azkenduari atxikitako langileekin subrogatu behar bada lan harremanei dagokienez, eta horiek ez badaukate hizkuntza gaitasunik kontratuko klausuletan hizkuntzari buruz xedatutako baldintzak betetzeko, euskara kontratuan eskatzen den bezala ezagutzen eta erabiltzen duten langileak hartu beharko ditu esleipendun berriak langile subrogatuak ordezteko.

28.1.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak eta antzeko lanak egiteko kontratuetan, Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan (BTPP) hala xedatzen bada, lan horiek bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira, softwareen testu eta soinu interfazeak barne.

28.2.- Baldintza sozialak edo enplegu arlokoak:

28.2.1.- Lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden lege xedapenak, erregelamenduzkoak eta xedapen konbentzionalak betetzea.

28.2.2.- Baldintza orokorren 26.3 klausulan xedatutakoa betetzea.

28.2.3.- Kontratua bete bitartean, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan dagokion kategoria profesionalaren arabera jasotzen den soldata ordainduko zaio langileari; hori baino gutxiago inondik ere ez.

28.2.4.- Kontratua betetzearen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea:

28.3.1.- Kontratuaren arduradunari, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratista eta hornitzaileen zerrenda xehatua bidaltzea –haien parte hartzea amaitutakoan–, bakoitzari dagozkion eta ordainketa epearekin lotura zuzena duten azpikontratazio edo hornidura baldintzekin batera.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunari, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan adierazitako azpikontratista eta hornitzaileentzako ordainketak bete izanaren egiaztagiria bidaltzea, SPKLren 216. artikuluan eta operazio komertzialetan berankortasunaren kontrako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez xedatutako ordainketa epeen barruan prestazioa amaitu ondoren.

29.- DATU PERTSONALEN KONFIDENTZIALTASUNA ETA TRATAMENDUA

29.1.-. Konfidentzialtasuna

Kontratua gauzatzean kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala izango da. Kontratistak eta kontratua gauzatzeko atxikitako bere erantzukizunpeko langileek ezin izango dute inolako informaziorik erabili SPRIren baimenik gabe eurentzat, ezta hirugarrenei eman ere, eta informazio hori konfidentziala eta isilpekoa izateko eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte.

29.2.- Datu pertsonalen tratamendua lizitazio-prozeduran

Lizitatzaile bakoitzak lizitazio-prozeduran aurkezten dituen datu pertsonalak (legezko ordezkarien, harremanetarako pertsonen eta lan-taldeen datuak barne), bai eta adjudikaziodun suertatzen den lizitatzaileak kontratua formalizatzeko edo gauzatzeko ematen dituen datu pertsonalak ere, SPRIk tratatuko ditu, lizitazioan haren parte-hartzea kudeatzeko eta, adjudikaziodunaren kasuan, aldeen artean ezartzen den kontratua behar bezala formalizatu, kudeatu eta kontrolatzeko. Hori guztia kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko araudian oinarrituta eta, adjudikaziodun suertatzen den lizitatzaileari dagokionez, aldeen artean ezartzen den kontratu-harremanean oinarrituta egingo da.

Hirugarren interesdunen datuak ematen dituztenean, lizitatzaileek eta adjudikaziodunak bermatu egingo diote SPRIri datu horiek emateko legezko betekizunak betetzen dituztela.

Datu horiek honako hauei baino ez zaizkie jakinaraziko: (i) SPRIri dagozkion legezko betebeharrak betetzeko jakinarazpen hori egin behar zaien erakunde edo organismo publikoak eta (ii) prozeduran interesa dutenak, baldin eta kontratazio publikoari aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz datu horiek eskuratzea eskatzen badute. Ez da aurreikusten datu horien nazioarteko transferentziarik egingo denik.

Testuinguru horretan, adierazten da, berariaz kontrakoa adierazi ezean, derrigorrezkoa izango dela datu horiek aurkeztea eta ondoren aipatutako baldintzetan jakinaraztea, eta datuak aurkezten ez badira edo aurkeztutako datuak okerrak badira, gerta liteke lizitazioan duen parte hartzea ezin kudeatzea eta, hala badagokio, kontratua ezin egitea.

Lizitatzaile bakoitzak ematen dituen datu pertsonalak kontratazio-prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita, hala badagokio, SPRIk bere legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak dituen kontserbazio-epe gehigarrietan ere. Adjudikaziodunari dagokionez, ematen dituen datu pertsonalak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita, hala badagokio, SPRIk bere legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak dituen kontserbazio-epe gehigarrietan ere.

Interesdunek eskubidea izango dute (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuok eramateko, edo, hala dagokionean, datuen tratamenduaren aurka egiteko eskatzeko, honako helbide honetara bidalitako mezu elektroniko baten bidez: lopd@spri.eus; eta (ii) SPRIko Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremanetan jartzeko honako helbide honetara bidalitako mezu elektroniko baten bidez: dpd@spri.eus.

Halaber, interesdunek eskubidea dute erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, bereziki euren eskubideak gauzatzerik izan ez badute.

29.3.- Datu pertsonalen tratamendua kontratua gauzatzen den bitartean

Adjudikaziodunak bete egin beharko ditu honako araudi hauetatik eratorritako betebeharrak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, "DBEO"); Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (aurrerantzean, "DPBEDBL"); eta datu pertsonalak babesteari buruzko beste edozein araudi nazional eta Europar Batasunekoa, baldin eta kontratua indarrean dagoen bitartean bere jardueren esparruan eta, tratamendu horren arduradun gisa, bere kontura eta erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamendua dela-eta aplikatu beharrekoak badira.

Kontratua gauzatzeko, eta kontratuaren edukia kontuan hartuta, adjudikaziodunak datu pertsonalen tratamenduak egin behar baditu SPRIren edo hirugarren erakunde batzuen kontura, eta erakunde horiek tratamenduaren arduradun badira, adjudikaziodunak, tratamenduaren arduraduna/arduradunorde den aldetik, dagokion kontratua sinatu beharko du SPRIrekin, DBEOren 28. artikuluan zehaztutako edukiarekin eta irismenarekin.

Kontratu hori SPRIk eta adjudikaziodunak zerbitzuen kontratua sinatzen duten unean sinatu beharko da.

Hala ere, eta kontratu horretan ezartzen dena gorabehera, lizitazio honen xede den kontratazioari dagokionez, adjudikaziodunak honako aurreikuspen hauek bete beharko ditu:

a) DBEOn, DPBEDBLn eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatu beharreko datuak babesteko gainontzeko arauetan xedatutakoa beteko du.

b) Datu pertsonalak Plegu honetan edo kontratazio hau arautzen duen Preskripzio Teknikoen Agirian zehaztutako xedeetarako soilik tratatuko ditu.

c) Kontratua formalizatu aurretik, zinpeko adierazpena aurkeztuko du. Bertan, hala badagokio, datuen tratamenduari euskarria ematen dioten zerbitzarien kokapen fisikoa zehaztuko du, bai eta horiei lotutako zerbitzuak non emango diren ere.

d) Kontratua indarrean dagoen bitartean, c) letran aurreikusitako zinpeko aitorpenaren arabera emandako informazioari lotuta gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko du.

e) Datu pertsonalak SPRIk dokumentatuko argibideei jarraikiz tratatuko ditu soilik.

f) Informazioa eta interesdunaren baimena lortzeko betekizunak, DBEOn eta DPBEDBLn jasotakoak, behar bezala beteko ditu.

Xede horrez eta beharrezkoa denean, adjudikaziodunak beharrezko bideak erabiliko ditu (adibidez: informazio-klausulak formularioetan eta interesdunekiko harremanetan erabili beharreko beste agiri batzuetan, etab.). Horretarako, honako hau zehaztu beharko da: (i) datuen tratamendua SPRIren edo hirugarren erakunde batzuen kontura egiten dela, eta SPRI dela tratamenduaren arduraduna; eta, (ii) horrenbestez, SPRI edo hirugarren erakunde hori izango dela tratamendu horren arduradun bakarra eta esklusiboa. Halaber, adjudikaziodunak tratamenduaren arduradun/arduradunorde izaera izango du.

g) Bere ardurapean dauden eta datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak konfidentzialtasuneko betekizuna bete behar dutela bermatuko du.

h) Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko ditu. Horretarako, aintzat hartuko ditu teknikaren egoera; aplikazio-kostuak; tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak; eta, pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak.<Besteak beste, eta azalpena emateko baino ez, honako neurri hauek baloratuko dira:

- Datu pertsonalen seudonimizatzea eta zifratzea;
- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko neurriak;
- Datu pertsonalak arin berrezartzeko edo haietara arin sartzeko neurriak gorabehera fisikoak edo teknikoak badaude;
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesuak.

i) SPRIk hala eskatzen dionean eta datuak babesteari lotutako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko, honako hauek aurkeztuko ditu: (i) SPRIren edo hirugarren erakunde batzuen kontura egindako jardueren kategoria guztien erregistroaren kopia bat, SPRI erakunde horien tratamenduaren arduraduna bada; eta (ii) erakunde kontratatzaileak komenigarritzat jotzen duen beste edozein agiri, betiere zerikusia badute kontratistak SPRIren eta/edo hirugarren erakunde batzuen kontura egiten duen datu pertsonalen tratamenduarekin, SPRI erakunde horien tratamenduaren arduradun bada.

j) Auditoretzak egiteko aukera emango du eta horietan lagunduko du, ikuskaritzak barne, bai SPRIk egindakoak, bai hark baimendutako beste ikuskatzaile batek egindakoak.

k) SPRIri zuzenean jakinaraziko dio nor diren segurtasun-neurriak praktikak jartzeaz eta ikuskaritza egiteaz arduratuko den pertsona edo pertsonak.

l) Bere langileei prestakuntza eta informazioa emango die, datuen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiaren ondoriozko betebeharrei dagokionez.

a) letratik d) letrara ezarritako betekizunak funtsezko kontratu-betekizunak izango dira, SPKLaren 211.1.f) artikuluan xedatutako ondoreetarako; hortaz, horiek betetzen ez badira, SPRIk kontratua suntsitu ahal izango du.

30.- ARRISKU PENALAK ETA LEHIAREN AURKAKO JARDUKETAK PREBENITZEKO BETETZE-SISTEMA

SPRIri ezin zaio aplikatu pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruz Zigor Kodean ezarritako araubidea. Nolanahi ere, SPRIren administrazio-organoak Arrisku Penalak Prebenitzeko Sistema bat ezarri du; izan ere, horixe da, bere kultura etiko eta arautzaileagatik eta delitu izan daitezkeen edozein motatako jardueren aurrean tolerantziarik ez onartzeagatik, bere Bikaintasun Politikan eskatzen duen konpromisoetako bat.

Ildo horri jarraikiz, eta gardentasunaren eta gobernu korporatibo onaren oinarrizko printzipioak eta araudia betetze aldera, kontratistak adierazten du ezagutzen dituela Jokabide Kodea, Salaketen Kanalaren Protokoloa eta Irregulartasunak Antzemanez gero Jarduteko Protokoloa. Horiek guztiak SPRIren webgunean (https://www.spri.eus/archivos/2020/12/pdf/codigo-conducta-2.pdf) daude argitaratuta. Halaber, adierazten du ulertzen duela haien irismena eta edukia, eta bere gain hartzen du, kontratuko funtsezko baldintza gisa, haietan jasotako balioak eta betebeharrak betetzea.

31.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

31.1.- Lanen jabetza.

Edozein fasetan egiten diren lanak botere esleitzailearen jabetzakoak dira. Ondorioz, botere esleitzaile horrek edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lanketa programarekin bat badator eta lanen martxa ona eragozten ez bada.

Halaber, kontratistak prestazioa aldez aurretik hartzea eskatu ahalko du, eta esleitzaileak erabakiko du eskaera hori onartu edo ez.

31.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskaintzea xede duten zerbitzu kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere esleitzaile kontratatzaileari laga beharra.

SPRIk, ondorioz, bereak egiten ditu, produkzioko jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektualaren eskubideak eta, bereziki, erreprodukzio eskubidea, banaketa eskubidea, komunikazio publikoaren gaineko eskubidea, eskuratutako obra edo produktua eraldatzeko eskubidea eta ekonomikoki ustiatzeko moduko beste guztiak. Jabetza intelektualaren eskubide horiek modu esklusiboan edukiko ditu SPRIk, sinadura datara arte izandako edozein ustiapen modalitate edota euskarriren gainetik, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean xedatutako gehieneko iraupen eperako eta munduko herrialde guztietara –salbuespenik gabe– hedatzen den lurralde eremuan.

Eskubide honen titulartasunak, amaierako lan edo produktuaz gain, honako hauek ere barne hartzen ditu: lanak, zirriborroak, eskemak, aldez aurreko dokumentuak, fluxu diagramak eta, oro har, jabetza intelektualaren eta industrialaren xede izanik garapenerako egin diren lan guzti-guziak.

Kontratistak **informazio xehea eman behar dio** SPRIri kontratatutako lanaren emaitzari txertatuko zaizkion aurretiazko ekarpenen gainean hirugarrenek eduki litzaketen legezko eskubideen eta erreserben inguruan. Kontratistaren betebeharra da aipatutako eskubide eta erreserbei lotutako elementu guztiak erabat eskuragarri izango direla bermatzea, horrek ekar litzakeen kostuak bere gain hartuz.

Kontratistak erantzukizun osoa hartuko du, eta bere gain hartuko ditu aipatutako eskubideei buruz egiten diren erreklamazioak, eta SPRI indemnizatu beharko du erreklamazioak aurkeztetik erator litezkeen kalte eta galera guztiengatik, izan litezkeen ordezkaritza eta defentsa gastuak ere bere gain hartuz.

Kontratuaren xedea **aplikazio informatikoak** landu eta garatzea baldin bada, aurreko paragrafoko hirugarrenen legezko eskubide eta erreserbei buruzko informazioan honako hauek adierazi beharko dira: erabilitako iturri guztien erreferentzia, bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak eta konpilazioan edo exekuzioan erabiltzen den.

Ez kontratistak ez lanketan esku hartu duten pertsonek ezin izango dute lana beren onurarako erabili, ez kontratatutako lanaren filmazio, testu, marrazki, argazki eta antzekoen atalak hirugarrenei eman, ez eta osorik edo partzialki argitaratu ere, SPRIk, idatziz eta aldez aurretik, horretarako baimena ematen ez badu behintzat. Era berean, ez dira saiatuko kontratutik erator litezkeenen berdinak edo antzekoak diren eskubideak –jabetza

industrialarenak nahiz intelektualarenak– erregistratzen, eta betebehar horrek kontratua amaitu ondoren ere indarrean iraungo du. Nolanahi ere, kontratistak bere gain hartuko du betebehar horiek ez betetzetik erator litezkeen kalteen eta galeren erantzukizuna.

Kontratistak konpromisoa hartzen du SPRIrekin lankidetzan jarduteko eta eskatzen zaion dokumentazio guztia izenpetzeko, klausula honetan aipatutako eskubide guztiak SPRIk eskura ditzan edota bere alde babes ditzan.

32.- ZIGORRAK.

Legez kontratistari dagozkion betebeharren kalterik gabe, alegia, akatsak konpontzearen eta kalte-galerak indemnizatzearen kalterik gabe, eta kontratua suntsiarazteko aukeraren kalterik gabe, zeina SPKLn nahiz baldintza orokorren 38. klausulan jasotzen baita, kontratazio organoak zigorrak ezarri ahalko dizkio kontratistari, arrazoi hauek direla eta:

32.1.- Kausak eta zenbatekoak.

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan, hala badagokio, adierazten diren ez-betetzeak: klausula horretan jasotzen diren zenbatekoak.

b) Epe totala edo epe partzialak betetzean berandutzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan adierazitako zenbatekoak, kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan besterik adierazten ez bada.

c) Kontratuaren funtsezko obligazioak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%1etik %10era** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatutakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren **%50eraino**.

e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoa ez betetzea: atzeratutako egun bakoitzeko zenbatekoa izango da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%0,01**.

f) Eskaintzaren bidez eta balorazio irizpide gisa aintzat hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%1etik %10era** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Ingurumen, gizarte eta lan arloko obligazioak, zeinak kontratuaren klausula espezifikoen 12.1 klausulan adierazten baitira, ez betetzea (ondorio horietarako, 12.2.2.1 klausularen ez-betetzetzat jotzen da soldatak ez ordaintzea edo ordainketan behin eta berriz berandutzea, bai eta hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata baldintza baxuagoen aplikazio larri eta dolozkoa): kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%0,5etik %10era** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

h) Laneko segurtasun eta osasun plana zehaztutako epean ez aurkezteagatiko ez-betetzea: atzeratutako egun bakoitzeko zenbatekoa euro batekoa izango da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euroko.

32.2.- Prozedura.

Zigorren ezarpena kontratazio organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta erabakitzeko prozeduran jarduketa hauek gauzatuko dira:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, non detektatutako ez-betetzeak identifikatuko diren eta zigorraren zenbatekoa proposatuko den.

b) Kontratistari bost (5) egun baliodun ematea entzuna izateko, egoki ikusten dituen alegazioak formula ditzan.

c) Kontratazio organoaren ebazpena.

d) Zenbatekoak biltzeko, ordainketa total edo partzial gisa kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoetatik kentzea, edo, hala badagokio, eratutako bermetik, baldin eta aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira.

33.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

33.1.- Emandako edo gauzatutako zerbitzuen ziurtagiria.

33.1.1.- Kontratistak datu hauek jasotzen ditu(zt)en zerbitzu ziurtagiria(k) aurkeztu beharko d(it)u kontratuaren klausula espezifikoen 19.5.2 klausulan adierazitako erregistroan:

a) Espediente kodea.

b) Kontratistaren izena edo izen soziala eta IFZ.

c) Emandako edo gauzatutako zerbitzuen zerrenda baloratua –itundutako prezio(ar)en arabera– (BEZ barik).

d) Azpikontratistek gauzatutako prestazioen gaineko datuak: azpikontratist(ar)en izena(k), egindako lana, ordainketa epearekin zuzenki lotuta hitzartutako baldintzak.

e) Zerbitzuei dagozkien aldia (ziurtapena partziala baldin bada).

33.1.2.- Epea eta baldintzak.

Aurkezpena honako epe eta baldintza hauetan egingo da:

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa bakarra ezartzen badu: kontratua gauzatzen amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan ziurtagiri osoa aurkeztuko da.

b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa partzialak ezartzen baditu: aipatutako klausulan zehazten diren aldizkako mugaegunetako bakoitzaren ondorengo hogeita hamar (30) egunen barruan ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira.

33.2.- Adostasuna.

Enpresa kontratistak kontratua bete egin duela ulertuko da kontratuaren xedea erabat betetakoan, kontratuan xedatzen den eran eta SPRIren gogara.

Hori egiaztatzeko, kontratuaren xede diren lanen amaierari buruz esleipendunak egindako txostena eta SPRIko kontratu arduradunaren egiaztatze txostena beharko dira.

Onarpen dokumentuaren kopia jasota, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5.2 klausulan adierazten den erregistroan aurkeztuko du faktura kontratistak.

33.3.- Ordainketa.

Botere esleitzaileak faktura(k) jaso eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan ordaindu beharko du prezioa, kontratuaren arduradunaren oniritzia jaso ondoren.

Ordainketa egiten berandutuz gero, aurreko paragrafoan adierazitako epea betetzen denetik aurrera, berandutze interesak eta kobraketa kostuengatiko kalte-ordainak ordainduko dizkio kontratistari, operazio komertzialetan berankortasunaren kontrako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatzen den eran.

Nolanahi ere, kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 19.5.2 klausulan adierazitako erregistroan emandako zerbitzuen ziurtagiria(k) eta fakturak aurkeztu izanak edo aurkeztu ez izanak baldintzatuko du interesak sorrarazteko epearen zenbaketa. Kontratistak ez badu betetzen hogeita hamar eguneko (30) epea faktura SPRIren erregistroan aurkezteko, interesen sortzapena ez da hasiko faktura dagokion erregistroan aurkezten den datatik hogeita hamar (30) egun igaro arte, botere esleitzaileak adostasuna onartu gabe, egoki bada, eta dagokion ordainketa egin gabe.

34.- KONTRATUA ALDATZEA.

34.1.- Baldintzak.

Kontratua gauzatu ondoren, kontratazio organoak kontratuaren klausula espezifikoen 16. klausulan eta SPKLren 204 eta 205. artikuluetan xedatutako kasuetan aldatu ahal izango du, bestela ez.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira, besteak beste, helburutzat dutenak aurrekontu egonkortasuna lortzea aurrekontu-urtaldian.

34.2.- Prozedura.

34.2.1.- Aldaketa erabakitzeko prozeduran, beti ere, jarduketa hauek sartzen dira:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopuru zehatza zehaztuta:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, zeinean zehaztuko baitira aldaketa egin beharra dakarten interes publikoko arrazoiak, aldaketaren irismen kualitatibo eta kuantitatiboa, elkartzen diren zirkunstantziak eta zirkunstantzia elkarketa horren egiaztapen objektiboa.

2) Kontratazio organoaren ebazpena, prozedurari hasiera emateko.

3) Kontratistari entzuna izateko aukera ematea bost (5) egun baliodunetan.

4) Proiektua edo espezifikazio teknikoak kontratazio organotik kanpoko hirugarren batek prestatu baditu, proiektua edo espezifikazio horiek idatzi dituenari entzuna izateko aukera ematea hiru (3) egun baliodunetan.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio organoaren ebazpena eta kontratistari zuzendutako jakinarazpena.

7) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazio guztiekin eta, hala badagokio, aldaketa onartu aurretik bildutako txosten guztiekin batera.

8) Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baldin eta kontratua erregulazio harmonizatuari lotuta badago (SPKLren IV. eranskinean jasotako zerbitzu batez ari garenean izan ezik) eta aldaketak SPKLren 205.2 artikuluaren a) eta b) letretako kasuren bati erantzuten badio.

b) Prezio unitarioaren araberako segidako traktuko kontratuak, non prestazioaren unitate kopuru totala ez den zehaztasunez zehaztu kontratua egitean:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, non justifikatuko baita behar errealak handiagoak direla hasieran kalkulatutakoak baino, eta horien irismen ekonomikoa zehaztuko baita.

2) Kontratazio organoaren ebazpena, prozedurari hasiera emateko.

3) Kontratistari entzuna izateko aukera ematea bost (5) egun baliodunetan.

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio organoaren ebazpena eta kontratistari zuzendutako jakinarazpena.

6) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazio guztiekin eta, hala badagokio, aldaketa onartu aurretik bildutako txosten guztiekin batera.

34.2.2.- Ondoren zehaztuko diren kasuetan, gainera, jarduketa hauek egingo dira:

1) Prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatu egiten bada, kontratistak bermea birdoitu beharko du, ebazpena jakinarazten den datatik zenbatzen hasi eta hamabost (15) eguneko epean.

2) Gobernu Kontseiluak aldaketa baimenduko du bi zirkunstantzia hauek gertatzen direnean:

a. Sektore publikoko kontratuei buruzko araudian adierazitako iraupena gainditzen duen kontratu bat izatea, bereziki, kontratu jakin batzuetarako edo, oro har, zenbait kategoriatarako.

b. Aldaketa, kontratua suntsiarazteko kausa izatea.

3) Aldaketa ez badago AKPPan jasota, Batzorde Juridiko Aholkulariak txostena egingo du kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta aldaketak %20tik gorako aldea badakar. Ondoz ondoko aldaketak egitea erabakitzen bada, aldaketa horiek guztiak kontuan hartuz kalkulatuko da portzentajezko aldakuntza.

34.2.3.- Nolanahi ere, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko da aldaketa, eta SPKLren 63 eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

34.3.- Ondorioak.

Klausula honetan xedatutakoaren arabera erabakitzen diren aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

35.- AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu ahal izango du aipatutako klausulan zehaztutako mugen barruan eta klausula honetan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren gauzatze partziala, erantzukizun osoa bere gain hartuko du kontratua plegu honi zorrotz jarraituz eta kontratuan xedatzen den eran betetzeko, gizarte eta lan arloko obligazioak ere betez.

35.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak, lizitazio fasean, baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den eran bete badu EKDBaren II. zatiko D atala eta azpikontratazioa bertan adierazten diren baldintzetan zehatz-mehatz egin nahi badu: kontratuaren arduradunari helarazi beharko dio **V. ERANSKINEAN** jasotzen den adierazpena behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanei ekin baino bost (5) egun baliodun lehenago gutxienez.

b) Kontratistak, lizitazio fasean, baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den eran bete badu EKDBaren II. zatiko D atala, baina azpikontratazioa EKDBan adierazitako baldintzetan ez, beste baldintza batzuetan egin nahi badu, edo aipatutako atala bete ez badu: kontratuaren arduradunari helarazi

beharko dio **V. ERANSKINEAN** jasotzen den adierazpena behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanei ekin baino hamabost (15) egun baliodun lehenago gutxienez.

35.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Kontratistak justifikatu beharko du bete egiten dituela azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa baldintzak, zeinak SPKLren 216. artikuluan xedatzen diren mugak errespetatu behar dituzten, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoaren arabera, eta gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 32.1.1 klausularen d) letran xedatutakoaren arabera.

36.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA.

36.1.- KONTRATUA LAGATZEA.

36.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan kontratistaren ondorengotzaz jasotzen diren kasuen kalterik gabe eta SPKLren 69.6 artikuluan ABEEaren osaera aldatzeaz jasotzen diren kasuen kalterik gabe, kontratua kasu hauetan laga ahal izango da:

1. Uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluaren arabera, kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean eta oraindik konkurtso deklarazioa eskatu ez duenean, baldin eta beste prozedura batean kaudimengabetzat joa izan ez bada.
2. Kontratista konkurtso egoeran deklaratua izan denean, eta baita likidazio fasea ireki denean ere, edo konkurtso egoera deklaratzeko epaitegi eskudunari jakinarazi dionean birfinantzaketa hitzarmen bat lortzeko edo hitzarmen proposamen aurreratu baterako atxikimenduak lortzeko negoziazioak hasi dituela, konkurtso legerian xedatzen den eran.
3. Kontratista pertsona fisiko bat denean eta kontratua amaitu aurretik erretiroa hartzeko borondatea adierazi duenean.

36.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idatzi bat helaraziko dio kontratuaren arduradunari, lagapena egiteko baimena eskatuz. Eskaera horri honako dokumentazio hau erantsi beharko dio:
   i. Kontratuaren lagapena eskatzea ahalbidetzen duen zirkunstantzia egiaztatzen duen dokumentazioa.
   ii. Lagapen hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluaren c) letran jasotzen diren eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
2. Kontratazio organoaren ebazpena, prozedurari hasiera emateko.
3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, non adieraziko baita ea kontratuaren zenbatekoaren %20 gutxienez gauzatuta egotearen eskakizuna bete behar den ala ez, eta baiezko kasuan, ea eskakizun hori betetzen den. Era berean, adierazi beharko du SPKLren 214. artikuluaren 1. ataleko bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla.
4. Txosten juridikoa.
5. Lagapena formalizatuko den eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztu beharko du kontratistak.
6. Lagapena baimentzen duen kontratazio organoaren ebazpena eta kontratistari zuzendutako jakinarazpena.
7. Kontratazio organoaren ebazpena, zeinaren bitartez lagapena baimenduko den, kontratatzailearen profilean argitaratzea.
8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.
9. Lagapen hartzaileak EAEko Diruzaintza Nagusian gordailutuko du bermea. Lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

36.1.3.- Baldintzak.

36.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio organoak lagapena baimendu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluaren 2. atalean jasotako eskakizunak betetzea.
2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri teknikoak zein pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri ez izan izana.
3. Lagapenak ez eragitea lehiaren murrizketa efektiborik merkatuan.

36.1.3.2.- Ez da baimenduko kontratua hirugarren bati lagatzea baldin eta horrek kontratistaren ezaugarriak funtsezko eran aldatzea eragiten badu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

36.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatuko da.

36.1.3.4.- Lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

36.2.- ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA.

36.2.1.- ABEEaren osaera aldatzeak kideen kopurua handitzea, txikitzea edo kide bat edo gehiago ordeztea badakar, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idatzi bat helaraziko dio kontratuaren arduradunari, aldaketa egiteko baimena eskatuz. Eskaera horri honako dokumentazio hau erantsi beharko dio:
   i. ABEEaren osaeraren aldaketa eskatzea ahalbidetzen duten zirkunstantziak gertatzen direla justifikatzen duen agiria.
   ii. ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen eta sailkapen baldintzak betetzen dituela, enpresa elkartea osatuko duten kide guztiek jarduteko ahalmen osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.
2. Kontratazio organoaren ebazpena, prozedurari hasiera emateko.
3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, non adieraziko den gutxienez kontratuaren zenbatekoaren %20 gauzatu dela.
4. Txosten juridikoa.
5. Kontratistaren eskutik, ABEEaren osaera berriaren formalizazioa jasoko duen eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztuko da.
6. ABEEaren osaera aldatzea baimentzen duen kontratazio organoaren ebazpena eta ABEE kontratistari zuzendutako jakinarazpena.
7. Kontratazio organoak ABEEaren osaera aldatzea baimentzen duen ebazpena emango du, zeina kontratatzailearen profilean argitaratuko baita.
8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.
9. ABEEak EAEko Diruzaintza Nagusian gordailutuko du berme berria. Aurrez ABEEak jarritako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berme berria formalki eratuta eduki arte.

36.2.2.- Direnak direlako operazioen ondorioz ABEEa osatzen duen/duten kideren batek/batzuek beste enpresa batekin/batzuekin bat egiten badu/badute, zatitzen bada/badira edo jardueraren adar bat eskualdatzen badu/badute eta sozietate xurgatzailea, bat egitearen ondorioz sortutakoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera adarra eskuratu duena ez bada ABEEko kidea, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan adierazitako tramite berberak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren %20aren gauzatze partzialari dagokion baldintza izan ezik.

36.2.3.- ABEEa osatzen duen/duten kide batek edo batzuk konkurtso egoeran deklaratua izan bada/badira, likidazio fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9 artikuluaren c) letran xedatutakoa beteko da, kontratua gauzatzeko behar adina berme gehigarri emateari buruz SPKLren 212.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, honelaxe jardungo da:

1. ABEE kontratistak idatzi bat helaraziko dio kontratuaren arduradunari, ABEEa osatzen duen/duten kidearen/kideen konkurtso egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, zeinaren bitartez eskaera hauetakoren bat egingo baita:
   i. Gainerako kidearekin/kideekin kontratua betetzen jarraitzea. Kasu honetan, ABEEak, bere osaera berriarekin, exijitutako kaudimen edo sailkapen baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak erantsi beharko dira.
   ii. ABEEko hasierako kideekin kontratua betetzen jarraitzea, konkurtsoan deklaratua izan den/diren kidea/kideak barne.
2. Baldintza orokorren 35.2.1 klausulako 2. puntutik 9.era bitartean (3. puntua alde batera utzita) deskribatzen diren tramiteak egitea. Eta kontratazio organoak ebazten badu ABEEak bere kide guztiekin jarraitu behar duela kontratua betetzen –konkurtsoan deklaratuak izan direnak barne– ABEE kontratistak behar adina berme gehigarri eman beharko du kontratua egoki gauzatu dadin, kontratazio organoak bere ebazpenean adierazi bezala.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA.

37.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA

37.1.- Entregatzea eta baldintzak ongi betetzen direla egiaztatzea.

Kontratuaren xede diren prestazioak entregatuko dira BTPPan zehaztutako espezifikazioen arabera eta baldintza orokorren 8. klausulan adierazitako epeetan.

BTPPan besterik aurreikusten ez bada, hauxe izango da entregatzeko data:

- Traktu bakarreko kontratuei dagokienez: kontratistak kontratuaren arduradunari prestazio guztiak BTPPan zehaztutako moduan eta formatuan entregatzen dizkion data.
- Segidako traktuko kontratuei dagokienez: kontratua gauzatzeko epea osoki amaitzen den eguna.

Entrega datatik zenbatzen hasi eta gehienez hamabost (15) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du itundutako baldintzak behar bezala bete direla, eta egiaztatze-txostena egingo du, hauetakoren bat adieraziz:

a) Ondorioztatu badu baldintzak bete direla: kontratua jasotzea proposatuko du, horretarako data bat jarriz –beti ere kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan adierazitako epe barruan- eta kontratistari bidaliko dio txostena.

b) Ondorioztatu badu baldintzak ez direla bete: ez-betetzeak edota akatsak identifikatuko ditu eta horiek zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena igorriko dio kontratistari, epe bat adieraziz zuzendu beharrekoak zuzentzeko eta jakinaraziz idatzizko erreklamazio bat egin dezakeela txostenean jasotako ondorioen aurka, bost (5) egun balioduneko epean.

Kontratistak ez badu erreklamaziorik egiten adierazitako epean, ulertuko da ados dagoela emandako jarraibideekin eta behartuta dagoela identifikatutako akatsak zuzentzera.

Kontratistak erreklamazioren bat egiten badu adierazitako epean, egiaztatze-txostena eta erreklamazioa igorriko zaizkio kontratazio organoari, zeinak erabaki bat hartuko baitu hamabost (15) egun balioduneko epean.

37.2.- Akatsak zuzentzea.

37.2.1.- Behin igaro ondoren akatsak zuzentzeko epea, kontratuaren arduradunak egiaztatuko du emandako jarraibideak behar bezala bete direla eta bigarren egiaztatze-txosten bat egingo du, gehienez hamar (10) egun balioduneko epean:

a) Ondorioztatu badu behar bezala bete direla: baldintza orokorren 36.1 klausulako a) atalean adierazitako ekintzak gauzatuko ditu.

1) Beste epe bat emango da akatsak zuzentzeko eta zigorra jarriko da, zeina izango baita kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 25erainokoa.

Azpikontratistak ez baditu akatsak zuzentzen horretarako emandako bigarren epean, kontratua suntsiaraziko da eta bermea inkautatuko da. Halaber, kontratistak eragindako kalteak ordaindu beharko dizkio botere esleitzaileari, kalteek inkautatutako bermea gainditzen duten kopuruan.

37.2.1.- SPKLren 315. artikuluak arautzen ditu obra-proiektuak idazteko kontratuetako akatsak zuzendu eta gabeziak konpontzeko prozedurak

37.3.- Hartzea.

Harrera egin arte, kontratistak ziurtatuko du itundutako baldintzak behar bezala betetzen direla. Kontratuaren arduradunak egiaztatze-txosten positibo bat eman izanak edo zerbitzu partzialen ziurtagiriei adostasuna eman izanak ez du salbuesten ardura horretatik.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu itundutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratuaren harrera egingo da.

37.4.- Likidatzea.

Kontratuaren izaeragatik hala komeni denean eta/edo SPKLren 309.1 artikuluko bigarren paragrafoko aurreikuspena beren-beregi jaso denean kontratuaren klausula espezifikoetan, harrera- edo adostasun-akta egiten den egunetik kontatzen hasita hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratazio organoak erabakiko du likidazioa egingo dela, kontratistari jakinaraziko zaio eta ordainketa egingo zaio, betiere ez badu faktura aurkeztu harrera egin ondoren.

Kontratistak harrera egin ondoren aurkeztu badu faktura, faktura hori kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkezten den egunean hasiko da kontatzen hogeita hamar (30) eguneko epea.

Berandu ordainduko balitz likidatutako saldoa, kontratistak eskubidea du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan.

38.-BERME EPEA ETA BERMEAREN ITZULKETA.

38.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan xedatutako berme epean –zeina kontratua hartu eta biharamunean hasiko baita–, kontratistaren betebeharra izango da egindako lanetan detektatutako akats eta hutsegiteak bere kontura konpontzea.

Kontratistari eskatu bazaio akats edo gabeziak konpontzeko ezarritako modu eta epean, eta kontratistak ez baditu zuzendu akats horiek, botere esleitzaileak aukera izango du Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluko derrigorrezko betearazpen-bitartekoak erabiltzeko.

Berme-epea igaro eta botere esleitzaileak ez badio eskatu kontratistari akatsak konpontzeko dagokion modu eta epean, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik emandako prestazioagatik. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango SPKLren 314. eta 315. artikuluetan obra-proiektuei buruz xedatutakoa betetzeko.

38.2.- Bermea itzultzea.

38.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakian bermea itzultzeko edo ezerezteko agindua sartuko da.

38.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-epea ezartzen bada, epe hori igarotakoan honelaxe jardungo da:

a) Berme-epean ez baldin bada behar den moduan eta epean erreklamaziorik formulatu, edo, formulatu arren, erreklamaziook zuzenduta badaude: kontratazio organoak ebazpena emango du bermea itzultzeko edo ezerezteko.

Ebazpena gehienez ere bi (2) hilabeteko epean emango eta helaraziko zaio kontratistari, berme-epearen amaieratik zenbatzen hasita.

b) Berme-epean zehar, erreklamazioak dagokion modu eta epean formulatu badira eta kontratistak ez baditu zuzendu: kontratuaren arduradunak eman beharreko aginduak emango dizkio kontratistari akatsak behar bezala zuzentzeko. Horretarako, epe bat emango zaio, zeinetan kontratistak jarraituko baitu izaten egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, SPKLren 311. artikuluko 2. atalean azaldutako terminoetan, eta ez du eskubiderik izango diru kopururik jasotzeko bermearen epea luzatu izanagatik.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak emandako aginduak horretarako emandako epean, bermea inkautatuko da.

38.2.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausulan onartuta badago bermearen zati proportzionalaren itzulketa edo ezereztea, baldintza orokorren 37.1 eta 37.2 klausuletan xedatutakoaren arabera jardungo da. Berme-epe bat xedatu bada, epe hori harrera partzialaren biharamunean hasiko da kontatzen.

38.2.4.- Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro bada, eta berme-epearen mugaeguna iritsi ondoren, kontratistari egotz ezin dakizkiokeen kausak direla-medio, ez harrera formalik ez likidaziorik egin ez bada, itzuli edo ezereztu egingo dira bermeak, SPKLren 110. artikuluan jasotako erantzukizunak kitatu direla egiaztatu ondoren. Kontratuari kalkulatzen zaion balioa 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista, SPKLren 11.5 artikuluan jasotako erreferentzien arabera, enpresa txiki edo ertain bat bada, urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

39.-SUNTSIARAZTEA.

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan, herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu-kontratuen 294. artikuluko c), d) eta f) ataletan eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan jasotzen direnez gain, honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak: SPKLren 190. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, botere esleitzaileak dituen zuzendaritza- eta ikuskaritza-eskumenak eragoztea.

b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

VII.- INTZIDENTZIAK ETA BERRIKUSPENA

40.-INTZIDENTZIAK.

40.1.- Kontratazio organoaren prerrogatibak.

Kontratazio organoak ebatziko ditu administrazio-kontratuak interpretatzean, betetzean eta aldatzean sor litezkeen zalantza guztiak, eta baita ere kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzean, betearazpena etetean, kontratua suntsiaraztean eta suntsiarazpenak ekar ditzakeen ondorioetan sor litezkeen auziak. Kontratazio organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

40.2.- Prozedura.

Plegu honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian kasu zehatzetarako ezarrita dagoena salbu, botere esleitzailearen eta kontratistaren artean kontratua betearaztean eta azkentzean sortzen diren intzidentzia guztiak espediente kontraesankorraren bitartez izapidetuko dira; espediente horren barruan honako jarduketa hauek egingo dira:

a) Botere esleitzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Aholkularitza juridikoaren txostena, hala badagokio.

e) Kontratazio organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek hala justifikatzen dutenean edo intzidentzien izaerak hala eskatzen dutenean izan ezik, prozedura hau izapidetzeak kontratua geldiaraztea ekarriko du.

41.- BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da organo eskuduna SPKLren 44.2 artikuluak (44.1 artikuluko kontratuekin lotuta) aurreikusitako egintzen aurka jartzen diren kontratazio arloko errekurtso bereziak ebazteko eta erabakiak hartzeko kasuan kasuko behin-behineko neurrien inguruan.

Aukera dago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (112, 121 eta 123. artikuluetan) eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak jartzeko SPKLren 44.1 atalean jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei buruzko egintzen aurka.

I. ERANSKINA.

LAN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK

Zerbitzu kontratua: (*kontratuaren xedea adierazi*)

Soil-soilik subrogazioa egoki denean. Ikus SPKLren 130. art.

Zerbitzuak garatzen diharduen lan taldearen datuen arabera, kontratuaren arduradunak bete dezan

Hitzarmen kolektiboa	Kategoria profesionala	Kontratu mota	Lanaldia	Antzinatasun data	Kontratuaren mugaeguna	Urteko soldata gordina	Indarreko itunak

…….(e)n, 20……(e)ko…….ren……(e)an

Sinatua:

II.1 ERANSKINA

EUROPAKO KONTRATAZIO DOKUMENTU BAKARRA (EKDB) AURKIBIDEA

Galdetegi honek honako zati eta atal hauek ditu:

I. zatia. Kontratazio prozedurari eta botere esleitzaileari edo erakunde esleitzaileari buruzko informazioa.

II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

- A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
- C atala: Beste erakunde batzuen gaitasunaz baliatzeari buruzko informazioa.
- D atala: Azpikontratistei buruzko informazioa, operadore ekonomikoa haien gaitasunean oinarritzen ez denean.

III. zatia. Baztertuta gelditzeko arrazoiak:

- A atala: Zigor penalekin lotutako arrazoiak.
- B atala: Zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzearekin lotutako arrazoiak.
- C atala: Kaudimengabezia, interes gatazka eta hutsegite profesionalarekin lotutako arrazoiak.
- D atala: Botere esleitzailearen edo erakunde esleitzailearen estatu kideko legeria nazionalean baztertuta gelditzeko xedatuta egon daitezkeen beste arrazoi batzuk.

IV. zatia: Hautaketa irizpideak:

- α atala: Hautaketa irizpide guztiei buruzko ohar orokorra.
- A atala: Egokitasuna
- B atala: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.
- C atala: Gaitasun teknikoa eta profesionala.
- D atala: Kalitatea ziurtatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.

V. zatia. Hautagai kualifikatuen kopurua murriztea.

VI. zatia. Azken adierazpenak.

I. zatia: Kontratazio prozedurari eta botere esleitzaileari buruzko informazioa

KONTRATAZIO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskatzen den informazioa automatikoki lortuko da, Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra sortzeko eta betetzeko zerbitzu elektronikoa erabiliz gero. Helbide honetan dago eskuragarri:-https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Kontratatzailearen identifikazio datuak[1]	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
Zertarako kontratazioa da?	**Erantzuna**
Kontratazioaren titulua edo deskripzio laburra[2]:	[ ]
Botere edo erakunde esleitzaileak espedienteari eman dion erreferentzia zenbakia (hala badagokio)[3]:	[ ]

II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazio datuak	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
BEZ zenbakia, hala badagokio[4]: BEZ zenbakia eduki ezean, adierazi, eskatuz gero, nortasuna adierazteko beste zenbaki nazional bat.	[ ] [ ]
Posta helbidea:	[…]
Harremanetarako pertsona edo pertsonak[5]: Telefono zk.: Helbide elektronikoa: Interneteko helbidea (web orriaren helbidea, hala badagokio):	[…] […] […] […]
Informazio orokorra	**Erantzuna**
Mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina al da operadore ekonomikoa?[6]	☐ Bai ☐ Ez

[1] Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako lizitazio iragarkiaren I. ataleko I.1 puntuan jasotako informazioa adierazi beharko da. Baterako kontratazioa baldin bada, kontratatzaile guztien izenak adierazi beharko dira.
[2] Ikus lizitazio iragarkiaren II.1.1 eta II.1.4 puntuak.
[3] Ikus EBAOn argitaratutako lizitazio iragarkiaren II.1.1 puntua.
[4] Espainiako herritarrek eta enpresek IFZ adierazi behar dute; Espainian bizi diren atzerriko herritarrek, AIZ; EBko estatu kideren bateko operadore ekonomikoek, IFK-BEZ edo Europar Batasunaren barruko IFK, edo, hala dagokionean, DUNS zenbakia; Europar Batasunetik kanpoko estaturen bateko operadore ekonomiko atzerritarrek, DUNS zenbakia adierazi behar dute.
[5] Behar den guztietan errepikatu harremanetarako pertsonei buruzko informazioa.
[6] Ikus Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruzkoa (2003-05-20ko 124. AO L, 36. or.). Estatistikak egiteko soilik eskatzen da datu hori.
Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago dituen operadore ekonomikoa; urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 2 milioi euro.
Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago dituen operadore ekonomikoa; urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 10 milioi euro.
Enpresa ertaina: ez da mikroenpresa, ezta enpresa txikia ere; 250 langile baino gutxiago ditu; urteko negozio bolumena: gehienez 50 milioi euro; urteko balantze orokorra: gehienez 43 milioi euro.

Kontratazio erreserbatua bada bakarrik[7]: operadore ekonomikoa tailer babestua edo gizarte enpresa al da, edo kontratua enplegu babestuko programen esparruan betearazteko asmoa al du? **Erantzuna baiezkoa bada,** Zein da desgaitasuna duten edo gizarte egoera ahulean dauden langileen portzentajea? Beharrezkoa bada, adierazi zer kategoriatan dauden desgaitasunen bat duten edo gizarte egoera ahulean dauden langileak.	☐ Bai ☐ Ez […] […]
Hala dagokionean, operadore ekonomikoa operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialen batean inskribatua al dago, edo ba al du ziurtagiri baliokiderik? (adibidez, (aldez aurreko) sailkapen sistema nazional baten barruan)[8]?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez da egoki
Erantzuna baiezkoa bada: **Erantzun atal honetako gainerako galderak, B atala eta, hala badagokio, C atala. Hala dagokionean, bete V. zatia eta, edonola ere, bete eta sinatu VI. zatia.** Adierazi zerrendaren edo ziurtagiriaren izena, eta dagokion inskripzio edo ziurtapen zenbakia: Baldin eta inskripzio ziurtagiria edo ziurtapena formatu elektronikoan badaude, adierazi datu hauek: Adierazi zein erreferentziatan oinarritzen den inskripzioa edo ziurtapena eta, hala badagokio, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena[9]: Jaso al dira inskripzioan edo ziurtapenean eskatutako hautaketa irizpide guztiak? **Erantzuna ezezkoa bada:** **Adierazi, gainera, IV. zatian falta den informazioa; A, B, C edo D atalak, dagokionaren arabera.** ***Kontratazioaren iragarkian edo baldintza pleguetan HALAKORIK ESKATZEN BADA (bestela ez):*** Operadore ekonomikoak aukera izango al du ziurtagiri bat aurkezteko Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruz? Eta izango du aukerarik informazioa emateko botere edo erakunde esleitzaileak ziurtagiria zuzenean eta doan lortu dezan edozein estatu kidetako datu base nazional baten bitartez? Dagokion dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi datu hauek:	[…] (web orrialdearen helbidea, dokumentua sortu duen agintaritza edo erakundea, dokumentuaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] […] ☐ Bai ☐ Ez ☐ Bai ☐ Ez (web orrialdearen helbidea, dokumentua sortu duen agintaritza edo erakundea, dokumentuaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Parte hartzeko modua	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste batzuekin batera ari al da parte hartzen kontratazio prozeduran[10]?	☐ Bai ☐ Ez

[7] Ikus kontratuaren klausula berezien 20.7. klausula eta EBAOn argitaratutako lizitazio iragarkiaren III.1.5 puntua.
[8] Ikus baldintza orokorren 11.5 klausula.
[9] Erreferentziak eta sailkapena, hala badagokio, ziurtapenean daude.
[10] Bereziki, talde, partzuergo, partaidetzako enpresa edo antzeko batean (aldi baterako enpresa elkartea).

Erantzuna baiezkoa bada, ziurtatu gainerako interesdunek EKDB galdetegia bereizita aurkeztu dutela[11].	
Erantzuna baiezkoa bada: a) Adierazi operadore ekonomikoak zein funtzio betetzen duen taldean (arduradun nagusia, egiteko berezien arduraduna, etab.): b) Adierazi kontratazio prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak: c) Hala badagokio, talde parte hartzailearen izena:	a): […] b): […] c): […]
Loteak	**Erantzuna**
Hala dagokionean, adierazi operadore ekonomikoak zein lotetarako edo loteetarako aurkeztu nahi duen eskaintza:	[]

B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala dagokionean, adierazi kontratazio prozedura honetan operadore ekonomikoa ordezkatzeko baimena duten pertsonen izena eta helbidea.

Ordezkaritza, hala badagokio	**Erantzuna**
Izen-abizenak: Jaiotza data eta lekuarekin batera, egoki bada:	[…]; […]
Zer kargutan/gaitasunetan diharduen:	[…]
Posta helbidea:	[…]
Telefono zk.:	[…]
Helbide elektronikoa:	[…]
Beharrezkoa bada, adierazi ordezkaritzari buruzko informazio xehatua (moduak, irismena, xedea…)	[…]

C: BESTE ERAKUNDE BATZUEN GAITASUNAZ BALIATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Baliabidea	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen gaitasuna[12] erabiltzen al du IV. zatiko hautaketa irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, EKDB galdetegia bereiz aurkeztu behar du erakunde bakoitzak, behar bezala betea eta sinatua, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioarekin.

Era berean, operadore ekonomikoaren enpresan zuzenean sartuta ez dauden teknikari edo erakunde teknikoak ere hemen adierazi behar dira, eta bereziki, kalitate kontrolaren arduradunak.

Operadore ekonomikoak baliatuko dituen gaitasun zehatzei dagokienez bidezkoa denean, erakunde bakoitzari buruz jaso behar da IV. zatian eskatutako informazioa[13].

D: AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA, OPERADORE EKONOMIKOA HAIEN GAITASUNEAN OINARRITZEN EZ DENEAN

[11] **Bi enpresa edo gehiago enpresa talde batean aurkezten badira, edo esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa elkartea formalki osatzeko konpromisoa adierazten badute, enpresa bakoitzak EKDB galdetegia bete eta sinatu beharko du, II., III., IV. eta V. zatiak beteta. Hainbat operadore ekonomikok batera aurkezten badute eskaintza, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa elkartea formalki osatzeko konpromisoarekin, ABEE bat formalki osatzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, klausula administratibo berezien pleguko dagokien eranskineko ereduaren arabera.**

[12] Gaitasuna esan arren, kaudimena ulertu behar da.

[13] Esate baterako, kalitate kontrolaz arduratzen diren organismo teknikoak badira: IV. zatia, C atala, 3. puntua.

Atal hau soilik bete beharko da baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulan berariaz hala eskatzen bada.

Azpikontratazioa	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak ba al du asmorik kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontratatzeko?	☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada,** eta datua ezagutuz gero, banan-banan aipatu aurreikusitako azpikontratistak: […][14]

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulan informazio hori eskatzen bada atal honetan eskatu denaren osagarri, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa ere eman beharko da, azpikontratista bakoitzeko, edo azpikontratisten kategoria bakoitzeko.

[14] Adierazi azpikontratistak, baldin eta hala eskatzen bada kontratuaren klausula berezien 14.2 klausularen a) letran. Adierazi baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan eskatutako datuak.

III. zatia: Baztertuta gelditzeko arrazoiak

A: ZIGOR PENALEKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK

2014/24/UE Direktibaren 57. artikuluaren 1. atalean, baztertuta gelditzeko arrazoi hauek jasotzen dira:
Erakunde delitugile batean parte hartzea[15].
Ustelkeria[16].
Iruzurra[17].
Terrorismo delituak edo terrorismo jarduerekin lotutako delituak[18].
Kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea[19].
Haurren lana eta gizakiak salerosteko beste modu batzuk[20].

Zigor penalei buruzko arrazoiak, 2014/24/EB Direktibaren 57. artikuluko 1. atalean jasotako arrazoiak aplikatzeko xedapen nazionalei jarraiki[21].	**Erantzuna**
Epai irmo bidezko zigorrik ezarri al diote operadore ekonomikoari edo haren administrazio, zuzendaritza edo gainbegiratze organoko **edozein pertsonari**, edo horiek ordezkatzeko, haien izenean erabakiak hartzeko edo haiek kontrolatzeko ahalak dituen norbaiti, goian adierazitako arrazoietako batengatik? (baldin eta epai hori aurreko bost urteetan eman bada, eta oraindik aplikagarria den baztertze epea ezarri bazen epaian)	☐ Bai ☐ Ez Dagokion dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi datu hauek: (web orrialdearen helbidea, dokumentua sortu duen agintaritza edo erakundea, dokumentuaren erreferentzia zehatza):

[15] Delinkuentzia antolatuaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2008ko urriaren 24ko 2008/841/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluan jaso den definizioaren arabera (2008-11-11ko 300. AO L, 42. or.).
[16] Europako Erkidegoetako edo Europar Batasuneko estatu kideetako funtzionarioen parte hartzea duten ustelkeria egintzen aurkako borrokari buruzko hitzarmenaren 3. artikuluan (1997-06-25eko 195. AO C, 1. or.) eta Sektore pribatuko ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2003ko uztailaren 22ko 2003/568/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluaren atalean (2003-07-31ko 192. AO L, 54. or.) definituta dagoen bezala. Baztertzeko arrazoi horretan kontuan hartzen da botere esleitzailearen (erakunde esleitzailearen) edo operadore ekonomikoaren legeria nazionalean ustelkeriari eman zaion definizioa ere.
[17] Europako Erkidegoetako finantza interesen babesari buruzko hitzarmenaren 1. artikuluan ulertzen den moduan (1995-11-27ko 316. AO C, 48. or.).
[18] Terrorismoaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2002ko ekainaren 13ko 2002/475/JAI Esparru Erabakian jaso den definizioaren arabera (2002-06-22ko 164. AO L, 3. or.). Baztertzeko arrazoi horren barne hartzen dira delitua egiteko indukzioa edo konplizitatea, bai eta delitua egiteko saiakuntza ere, Esparru Erabaki horren 4. artikuluan jasota dagoen bezala.
[19] Finantza sistema kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko ez erabiltzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko urriaren 26ko 2005/60/EE Direktibaren 1. artikuluan jasota dauden bezala (2005-11-25eko 309. AO L, 15. or.).
[20] Gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzko eta biktimak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko apirilaren 5eko 2011/36/EB Direktibaren 2. artikuluan jasota dagoen bezala (2011-04-15eko 101 AO L, 1. or.). Direktiba horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordezkatzen du.
[21] Ondorio horietarako, SPKLTBren 60. artikuluaren 1. zenbakiko a) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Epai irmo bidez zigorra jaso izana, honako delitu hauengatik: terrorismoa, antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea, zilegi ez den elkartzea, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, gizakien salerosketa, negozioetako ustelkeria, influentzia trafikoa, funtzionario eroskeria, prebarikazioa, iruzurrak, funtzionarioei debekatutako negoziazio eta jarduerak, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak, langileen eskubideen kontrako delituak, bidegabeko eralgitzea, kapital zuriketa, lurralde antolamendu eta hirigintzaren eta ondare historikoaren eta ingurumenaren babesaren arloko delituak, edo lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan aritzeko gaitasungabetze zigorra. Halaber, kontratatzea debekatuta izango dute erantzukizun penaldun deklaratzen dituzten pertsona juridikoek, bai eta haien administratzaile edo ordezkari egitatezko edo zuzenbidekoek ere, kargu edo ordezkaritza hori indarrean dagoen bitartean eta kargua utzi arte, baldin eta letra honetan aipatutako egoeran badaude".*

	[…] […] […][22]
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi datu hauek[23]: a) Zigorraren data, zein puntu den (1. puntutik 6.era bitartean) eta zigorra ezartzeko arrazoiak: b) Zigortutako pertsonaren identifikazioa []: **c) Zigorrean bertan zuzenean ezarrita badago:**	a) Data:[], puntua(k): [], arrazoia edo arrazoiak: [] b) [ ] c) Bazterketa aldiaren iraupena […] eta zein puntuz ari garen [ ]; Dagokion dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi datu hauek: (web orrialdearen helbidea, dokumentua sortu duen agintaritza edo erakundea, dokumentuaren erreferentzia zehatza): […] […] […][24]
Zigorra ezarri bada, neurririk hartu al du operadore ekonomikoak sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoi egokia egon (autozuzenketa)[25]?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi hartutako neurriak[26]:	[…]

B: ZERGAK EDO GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOAK ORDAINTZEAREKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK

Zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzea	**Erantzuna**	
Operadore ekonomikoak bete al ditu **zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko betebehar guztiak**, bai finkatuta dagoen herrialdean bai botere edo erakunde esleitzailearen estatu kidean[27], baldin eta ez badira herrialde bera?	☐ Bai ☐ Ez	
Erantzuna ezezkoa bada, adierazi datu hauek:	**Zergak**	**Kotizazio sozialak**
a) Herrialdea: b) Zenbatekoa: c) Nola ezarri da arau haustea? 1) Ebazpen administratibo baten edo ebazpen judizial baten bidez: - Ebazpen irmo eta loteslea da? - Adierazi zigorraren edo ebazpenaren data. - **Zigorra baldin bada, eta zigorrean ezarrita baldin badago**, bazterketa epearen iraupena. 2) Beste bide batzuen bidez. Zehaztu. d) Operadore ekonomikoak bete al ditu bere betebeharrak ordainketa bidez edo akordio lotesle bidez, zor dituen	[…] […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […]	[…] […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […]

[22] Behar den guztietan errepikatu.
[23] Behar den guztietan errepikatu.
[24] Behar den guztietan errepikatu.
[25] 2014/24/EB Direktibaren 57. artikuluaren 6. atala aplikatzeko xedapen nazionalekin bat etorrita.
[26] Azalpenean erakutsi beharko da hartu diren neurriak egokiak direla egin den delitu mota kontuan hartuta (delitua behin gertatu bada, edo behin baino gehiagotan, edo sistematikoki, etab.).
[27] Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. ataleko a) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "epai irmo bidez zigorra jaso izana, honako delitu hauengatik: *(...) Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak (...)*"; zenbaki bereko d) letran ezarrita dago hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez edukitzea, erregelamenduz zehaztutako moduan*"; eta hauxe dago ezarrita zenbaki bereko f) letran: *"Administrazio zehapen irmo baten ondorioz ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean egotea, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraiki".*

zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak eta, hala badagokio, sortutako interesak eta ezarritako isunak ordaintze aldera?	d) ☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada,** zehaztu: […]	d) ☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada,** zehaztu: […]
Zergak edo kotizazio sozialak ordaintzeari buruzko dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi:	(web orriaren helbidea, dokumentua sortu duen organismoa edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza)[28]: […] […] […] […]	

C: KAUDIMENGABEZIA, INTERES GATAZKA ETA HUTSEGITE PROFESIONALAREKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK[29]

Kaudimengabezia, interes gatazka edo hutsegite profesional posible guztiekin lotutako informazioa	**Erantzuna**
Zure uste eta jakituriaren arabera, operadore ekonomikoak bete al ditu **lan, gizarte eta ingurumen arloetako legeetan** ezarritako **betebeharrak[30]?**	☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada**, neurririk hartu al du operadore ekonomikoak sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoi egokia egon (autozuzenketa)? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk: […]
Egoera hauetako batean al dago operadore ekonomikoa?[31]: **Kiebra jota** Kaudimengabezia edo likidazio prozedura baten pean. Hitzarmena egin du bere hartzekodunekin. Antzeko ezaugarriak dituen eta lege eta arau xedapen nazionaletan indarrean dagoen prozedura batekin lotutako egoera batean dago. Likidatzaile batek edo auzitegi batek administratzen ditu haren aktiboak. Enpresa jarduerak bertan behera utzi zaizkio. **Erantzuna baiezkoa bada:**	☐ Bai ☐ Ez

[28] Behar den guztietan errepikatu.

[29] Ikus 2014/24/EB Direktibaren 57. artikuluko 4. atala. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da baztertzeko arrazoi hauek lege nazionalen arabera ulertu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adieraziko den bezala.

[30] Kontratazio honen ondorioetarako, lege nazionaletan, kontratazioaren iragarkian edo baldintza pleguetan, edo 2014/24/EB Direktibaren 18. artikuluko 2. atalean jasota dagoen bezala.

Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko b) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: zehapen irmoa jaso izana:

a) Lan edo gizarte arloan oso arau hauste larria egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, bai eta testu horren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau hauste larria egiteagatik ere.

b) Ingurumen arloan oso arau hauste larria egiteagatik, indarrean dagoen araudian xedaturikoaren arabera.

SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko d) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak"*(…) 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, enplegatuen ehuneko 2 gutxienez desgaitasunen bat duten langileak izateko baldintza ez betetzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluaren arabera, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin*".

[31] Ikus legeria nazionala, kontratazioaren iragarkia edo baldintza pleguak. Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko c) letrak dio hauek direla SPKLren 3. artikuluan xedatutako erakundeen kontratatzeko debekuak: "*Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratua izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuta egotea (konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu salbu), esku hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze aldia oraindik amaitu gabe egonik*".

Zehaztu: Adierazi zergatik operadorea, hala ere, gai den kontratua gauzatzeko, kontuan izanik halako egoera batean jarduerarekin jarraitzeari buruz aplikatzekoak diren xedapen eta neurri nazionalak[32]. Dagokion dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi datu hauek:	- […] - […] (web orriaren helbidea, dokumentua sortu duen organismoa edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Operadore ekonomikoa **hutsegite profesional larri** baten erruduntzat jo dute[33]? Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, hartu du operadore ekonomikoak neurri autozuzentzailerik? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk: […]
Operadore ekonomikoak akordiorik egin al du beste operadore ekonomiko batzuekin **lehia faltsutzeko**[34]? **Erantzuna baiezkoa bada,** zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, hartu du operadore ekonomikoak neurri autozuzentzailerik? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk: […]
Operadore ekonomikoak ba al daki interes gatazkarik sortu den berak kontratazio prozeduran parte hartzeagatik[35]?	☐ Bai ☐ Ez

[32] Ez da informazio hori eman behar izango baldin eta operadore ekonomikoa baztertzeko arrazoia a) letratik f) letrara jaso diren kasuetako bat bada, eta nahitaezkoa baldin bada legeria nazionalaren arabera. Horretan **ezin da salbuespenik egin**, nahiz eta operadore ekonomikoa kontratua gauzatzeko baldintzetan egon. SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko c) letran xedatutakoa bete beharko da.

[33] Hala dagokionean, ikus legeria nazionalean, kontratazioaren iragarkian edo baldintza pleguetan emandako definizioak. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko b) letran xedatutakoa bete beharko da, debeku hauek ezartzen baititu SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko: *"Zehapen irmoa jaso izana, arau hauste larria egiteagatik arlo profesionalean (…)".*

[34] Legeria nazionalean, kontratazioaren iragarkian edo baldintza pleguetan emandako definizioak. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko b) letran xedatutakoa bete beharko da, debeku hauek ezartzen baititu SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko: "*Zehapen irmoa jaso izana,* arau*hauste larria egiteagatik (…) lehia faltsutzearen arloan*".

